# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-10-14
EGUBAKOITZA
481. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM




ENEKO AZKARATE

**Asier Altuna** | Zinema zuzendaria

## "Bertsolaritza oso femeninoa eta oso gaztea da"

Gaur estreinatuko da 'Bertsolari' aretoetan | 8

Autobus linea berriak Arrasate eta Bergara Loiurekin lotuko ditu | 4



Bazkide kanpaina hasi dute saskibaloia bultzatzeko | 14



Gastronomia eta folklore jaialdia domekan Aretxabaletan | 15




Mintzapraktika egitasmoko parte-hartzaileak kartelarekin eta euskara elkarte eta udal euskaltegietako ordezkariak, Euskara zinegotziak eta Euskara teknikariak. | MONIKA BELASTEGI

# Lagun giroan eta astean ordubetez mintzapraktika egiteko programa abian

Euskaldun zaharrek berriekin euskara praktikatzeko doako Zaharberri eta Berbalagun programak aurkeztu dituzte Arrasateko AED eta Bergarako Jardun euskara elkarteek asteon. *Zu gabe ezin. Zatoz eta egin* lelopean, izen-ematea zabalik dago eta herritarrak parte hartzera animatu gura dituzte. | 4

## SINADURAK



TXIPI ORMAETXEA | 6

6 | TXOMIN MADINA





JOSU ELORTZA | 13

19 | IGOR ARIZMENDIARRIETA





AINTZANE OIARBIDE | 32


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 | KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | ESKELAK 28 | EZKONTZAK 29 | NON-ZER 30


## 58 odol emailek domina jasoko dute domekan Elgetan

Emaile nagusiarena jasoko dute hiruk, 75 emate egiteagatik | 5

## Aste bukaeretarako gaztegunea irekiko dute gaur Arrasaten

12-17 urte artekoen aisialdirako hutsunea bete nahi dute | 10

## Gaueko III. Tafyd krosa gaur Arrasaten | 20



## "Ikasgelan sartu eta behaketak egiten ditut zailtasunak detektatzeko"

**Juan Carlos Pascual** | Elgetako Herri Eskolako aholkularia | 19

# Nagusiendako zerbitzuen erabilpena aldatzen doa

▸ Erresidentziak mendekoendako soilik geratu dira

▸ Langabeek eurek zaintzen dituzte etxeko adinekoak



GSR Debagoiena erresidentziako nagusiak, Donostiako danborrada ospatzen.



Korrika egunean, korrikalarien zain GSR Debagoienako egoiliarrak. | IRATI GALLASTEGI

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gipuzkoa osoan, Debagoienak dauzka nagusien erresidentzietan sartzeko itxoin-zerrenda txikienak. Hala, Gipuzkoako egoitzetan, batez beste, eskaera eginez geroztikako itxoinaldia 191 egunekoa da, eta eskualde batzuetan luzeagoa da: adibidez, Bidasoaldean 354 egunekoa da eta Donostialdean, 228 egunekoa. Aldiz, Debagoienean 75 egunekoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ezinduen Laguntzarako zuzendari Txelo Perezek emandako datuen arabera. Hondarribiko Betharram egoitzaren obren bisitan, Perezek azpimarratu zuen eskualdeen artean dagoen desberdintasuna, eta Debagoieneko datua eman zuen. Guztira, Gipuzkoan 1.225 lagun daude egoitzaren baten sartzeko zain; hau da, adinekoen erresidentziak, eguneko zentroak, adimen-gaixotasunekoak, ezgaituenak eta beste batzuk batuta. Irail bukaeran, hauek ziren itxoin-zerrendak, Foru Aldundiaren datuen arabera: adineko pertsonendako egoitzetara sartzeko, Bergaraldean (Bergara, Antzuola eta Elgeta) hamar lagun zeuden zain eta Leintz ibarrean (Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Leintz Gatzaga), 49 (Gipuzkoa osoan, 843); eguneko zentroetan sartzeko, Bergaraldean lau eta Leintz ibarrean zortzi (Gipuzkoan, 205).

Gizarte Politikarako Departamentuaren ustez, "laguntza eredua berraztertu egin behar da, birplanteatu", eta "egoitzak Aldundiaren eskutik kudeatzera joan behar da". Ander Rodriguezek zuzentzen duen sailaren asmoa hauxe da: itxoin-zerrenden arazoari "epe laburrean" heltzeko, zentroekin plaza gehiago hitzartu, batez ere itxoin-zerrenda luzeenak dituzten eskualdeetan.

Bestalde, etxeko laguntza zerbitzua "ez gutxiengoak, baizik gehiengoak erabil dezan" da Gizarte Politikarako Departamentuaren helburua.

**DATUA**

**1.225**

PERTSONA

Gipuzkoan, 1.225 lagun daude itxoin-zerrendan: erresidentzian sartzeko 843 eta eguneko zentroetarako, 205.

### Legea eta immigrazioa

Debagoienean, denetariko zerbitzuak daude nagusien eskura: egoitzak –udalenak baina Aldundiarekin hitzartuak Bergaran, Arrasaten eta Oñatin; pribatuak, irabazi asmorik gabeak eta Aldundiarekin hitzartuak Arrasaten eta Eskoriatzan; eta pribatuak, irabazi asmodunak eta Aldundiarekin hitzartutako plazak dituen bat, Aretxabaletan–, eguneko zentroak herri gehienetan eta diruz lagundutako etxeko laguntza zerbitzuaren aukera, garrantzitsuenak aipatzearren.

Aukerak lehengoak dira, baina ez dira lehen bezala erabiltzen. Hainbat faktore egon daitezke atzean: 2007an Mendekotasun Legea onartu izana, immigrazioa eta ekonomia krisia.

Bergarako Udaleko Gizarte Ongizateko arduradun Xabier Legorburuk lehenengo biak aipatzen ditu etxeko laguntza zerbitzuak azken urteetan izan duen geldialdia azaltzeko: "Hirugarren adineko populazioa gero eta handiagoa da, baina eskaerak ez dira neurri berean handitu. Bergararen kasuan, arrazoiak bi direla uste dugu: Mendekotasun Legea onartu zenetik, etxean atenditzeagatik dirulaguntza jasotzen du jendeak; eta, bestetik, migrazioaren fenomenoarekin, jende askok nahiago du dirulaguntza hori bere aldetik zaintzaile bat kontratatzeko erabiltzea. Guk badakigu norberak kontratatutako zerbitzua modu libreagoan antolatu daitekeela; Udaletik datorren zerbitzua kontrolatuagoa dago, ordu aldetik eta lan mota aldetik". Hala ere, azken sei urteotan 3.000 ordu handitu da Bergarako Udalak ematen duen laguntza zerbitzua: aurten, 33.500 ordu dira.

Etxeko laguntza zerbitzu publikoaren finantzaketa hirukoitza da: araudiak markatzen duen baremoaren arabera, erabiltzaileak kostuaren parte bat ordaintzen du, eta sortzen den defizita Aldundiak (mendekotasunak dituztenena) eta Udalak (autonomoena) ordaintzen dute.

**DATUA**

**75**

EGUN

Debagoienean, batez beste 75 egun pasatzen dira zentro baterako eskaera egin eta betetzen den arte; Donostialdean, 228.

### Langabeak, zaintzaile

Mendekotasun Legearen dirulaguntzak eta krisia, biak egon daitezke ere beste fenomeno baten atzetik: herri batzuetan eguneko zentroen erabilerak izan duen geldialdia. Elgetako eguneko zentroa gehiago ezagutarazteko kanpainatxoa egin dute herrian eta inguruetan –Uberan, Angiozarren… Bideberri Mankomunitateko (Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzaga) gizarte langile Naiara Unamunok onartzen digu "komeni" dela "jende gehiago" joatea, bestela Foru Aldundiak ixteko arriskua dagoelako. Elgetako zentroak zazpi lagun har ditzake, eta orain bi dabiltza. Denetariko zerbitzuak ematen ditu, eta baita halako zentroetan ezohikoak diren batzuk ere: esterako, arratsaldez bakarrik joateko aukera.

Unamunok krisiari egozten dio eguneko zentroek duten gainbehera: "Lan barik geratu da jende asko, eta nahiago dute eurak geratzea etxean nagusia zaintzen. Mendekotasun Legearekin, gainera, dirulaguntzak daude jendea etxean zaintzen dutenendako".







Adineko bi emakume, eskulanak egiten.



## Bost egoitza eta 500 leku mendekoendako

Debagoienean 499 leku daude adinekoendako bost egoitzetan: Iturbiden 104 (78 mendeko handiendako eta zazpina burujabe eta mendeko txikiendako), Mizpirualden 110 (104 hartuta: 57 mendeko handiendako, 28 mendeko larriendako, 11 mendeko moderatuendako eta zortzi, burujabeendako); San Martinen 83 (60 mendekoendako), GSR Debagoienan 170 (97 kontzertatuak; eta plaza gehienak mendeko handiendako dira); eta Mesedeetako Amaren egoitzan, 32 (mendekotasun handia dutenendako). Itxoite-zerrenda guztiak Gizarte Politikarako Departamentuak kudeatzen ditu.

### ESANAK

**"Libre geratu zaizkigu bost plaza, baina segituan beteko dira"**

**"Burujabe gutxi sartzen dira; orain, etxean bizi dira gehienak"**

SOR MAITE
SAN MARTIN EGOITZAKO ZUZENDARIA

**"Burujabeek erresidentzian sartzeko ez dute aukerarik; beharra, bai"**

GREGORIO IRURETAGOIENA
MIZPIRUALDEKO ADMINISTRATZAILEA

**Mendeko handiak bakarrik**
Krisiaren eragina agerikoa da erresidentzien kasuan; orain urte batzuk arte, mendekotasun txikiak zutenek edo burujabe zirenek ere sartzeko modua izaten zuten, baina orain, "erresidentziak mendekotasun handikoendako bakarrik geratu dira", Eskoriatzako gizarte langile Agurtzane Altubek esaten duenez. Izan ere, egoitzetako plazak Foru Aldundiarekin hitzartuta daude erresidentzia gehienetan, eta horiek Aldundiak ordaintzen ditu neurri handi baten. Aldundiaren konpetentzia dira mendeko pertsonak, eta mendekotasun handiak dituztenak joaten dira normalean egoitzetara; burujabeak eta mendekotasun txikia dutenak gutxiengo bat dira egoitzetan.

Etxeko laguntza zerbitzua 27 lagunek dute aurten Eskoriatzan. Agurtzane Altubek esaten duenez, "azken urteotan, hortxe dabil kopurua". Eskoriatzan, 18,2 euro ordaintzen da ordua, eta Altubek onartzen du prezioa oztopo izan daitekeela berau eskatzeko. Hain zuzen, Gizarte Politika Departamentuaren helburu bat da "prezio publikoa zerbitzuaren preziotik banantzea": hau da, erresidentziekin egiten den moduan, Foru Aldundiak ipintzea zerbitzuaren gehieneko prezio bat, haren benetako kostuaren azpitik. Izan ere, gaur egun, kasu batzuetan, zerbitzuaren %100 ordaintzen dute erabiltzaileek.





ZELAIA OÑATI
www.zelaia.net
41 urte elkarrekin 1970-2011
ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99
SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

# Mintzalagun izan nahi dutenek ateak zabalik dituzte AEDn eta Jardunen

Euskaldun zaharrek berriekin, talde txikitan eta astean ordubetez berba egiteko programa aurkeztu dute

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Ikasturte berrirako Zaharberri eta Berbalagun mintza praktika programak aurkeztu dituzte Arrasateko AED eta Bergarako Jardun euskara elkarteek, *Zu gabe ezin. Zatoz eta egin* lelopean. Asteon aurkeztu dituzte, bi herriotako Euskara zinegotzi, udal teknikari eta udal euskaltegietako ordezkariekin batera.

Euskaldun berriak, euskara maila hobetu nahi dutenak edo euren inguruan euskaraz berba egiteko aukerarik ez dutenak euskaraz berba egiten dutenekin elkartu eta berba egitea errazten duen egitasmoa da.


Udal euskaltegi, udal eta euskara elkarteetako ordezkariak. | MONIKA BELASTGI

Taldetxotan gauzatzen da eta dohainekoa eta borondatezkoa da, Maitena Arana Zaharberri egitasmoko koordinatzaileak azaldu zuen moduan: "Euskaldun berri edo euskara maila hobetu nahi dutenek ez dute ezer ordaindu behar eta euskaraz berba egiten duten laguntzaileek ere ez dute kobratzen. Taldea laguntzaile batek eta praktikatu nahi duten bizpahiru pertsonak osatzen dute. Hala, ziurtatzen da giro atsegina, hurbila eta parte-hartzailea". Horrekin batera, azpimarratu zuen laguntzaile izateko ez dela euskara titulurik behar, euskaraz natural berba egitea nahikoa dela.

### Astean ordubete

Taldeok astean ordubetez batzen dira euskara praktikatzeko eta kideen zaletasuna, gustua, adina, bizitokia eta ordutegia aintzat hartuz sortzen dituzte. Ze egunetan, ze ordutan eta ze egoeratan elkartuko diren talde bakoitzak erabakiko du, Maitane Arizabaleta Berbalaguneko koordinatzaileak azaldu zuenez: "Taldea elkartu daiteke zerbait hartzeko, paseatzeko, kirola egiteko, erakusketa bat ikusteko... Eurak erabakiko dute. Posible da guraso eta umez osatutako taldeak osatzea ere; urteotan izan ditugu gurasoak umeak zainduaz astean ordubetez elkartu izan direnak eta partaideen iritziz, oso lagungarria izan zaie".

### Beste ekintza batzuk

Astean behineko hitzorduez gain, taldeek elkar ezagutzeko eta harremanen sarea zabaltzeko, hilean edo hil eta erdian behin, ekintza osagarriak antolatzen dituzte, hala nola irteerak, ikastaroak, bazkari eta afariak, kultura irteerak. Bihar, zapatua, esaterako, Barandiaran museora irteera antolatu dute.

Horrez gain, ekainean beste herri batzuetako mintzalagunek elkar ezagutzeko Mintza Eguna jaialdia ere antolatzen dute.

### Helburua, euskara erabiltzea

Mintzapraktika programa duela 11 urte abiarazi zuten Arrasaten eta Bergaran, 2006an, eta oso erantzun ona izan du bi herrietan. Esaterako, Arrasaten 45 lagunek hartu zuten parte aurreko ikasturtean eta Bergaran, 65ek. Antolatzaileen esanetan, azken urteetako zabalpenaren ostean, frogatu da taldeok tresna interesgarri eta eragingarriak direla euskaraz funtzionatzen duten harreman sareak eta ohiturak sortzen.

Euskararen erabilera bultzatu eta zabaltzea da helburu nagusia. "Erabiltzea da hizkuntza bat ondo ikasteko modurik egokiena, eta proiektu honek hori ziurtatzen du: astean ordu batzuetan euskara praktikatu nahi duenak euskal hiztunekin berriketan egotea".

Hori guztia kontuan izanda, egitasmoan parte hartzera animatu nahi dituzte "ikasle, irakasle, guraso, langile eta, oro har, herritar guztiak, denon artean posible delako hizkuntza komunitatea indartzea eta egonkortzea".

## Nola parte hartu?

Mintzapraktika taldeetan parte hartzeko baldintza bakarra da euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea. Horrez gainera, debalde da eta interesa duten guztiei zabalik dago.

Parte hartu nahi duenak antolatzaileengana jo dezake: Arrasateko AED elkartera (Pablo Uranga 6, 943 77 12 28) edo Bergarako Jardunera (Errotalde jauregia, 943 76 36 61).

"Euskara hobetzeko, laguntzeko, erabiltzeko, bizitzeko..." berbalaguna izatera animatu nahi dituzte debagoiendarrak.




KANTALDI IREKIAK KULTURATEN:

HASIERA: Azaroak 23 (domeka).
ORDUA: 18:00-20:00
EGUNAK: Azarotik apirilera 3. domeketan.

KALEZ KALE ARRASATEN:

Azarotik aurrera, hilean behin, ostiral batean

IRTEERAK:

Gure kantu irteeretara ere etor zaitezke (Donostia, Gernika, Otxandio, Eibar, Iruñea…).

Antolatzailea PORTALOI Elkartea herri kantu eta dantza


MUko ikasleak motorrekin lanean. | JULEN IRIONDO

# Renault etxeko azken belaunaldiko 10 motor MUko ikasleen praktiketarako

**M.B.** | ARRASATE

Renault Autoberrik errekuntza -motorretan egindako azken aurrerapenak MUko ikasleen esku jarri ditu. Halako hamar motor eman dizkio eta dohaintzaren helburu nagusia da ingeniari gazteek haren produktuak zuzenean ezagutzea eta izan ditzaketen arazoak konpontzen jakitea. Hala, ikasleek materialaren analisia, multzo osoaren bibrazio-ikerketa eta kontrol-elektronikaren garapena egiteko balioko dute motorrek.

Bestalde, dohaintza horrek aukera emango die ikasleei motorren funtzionamendua "ikusi, ukitu, aztertu eta kontrolatu eta hobetu ahal izateko, merkatuko punta-puntako teknologia erabiliz". Izan ere, MUko ordezkarien esanetan, euren arauetako bat da ikasleek "eginez ikastea".

# Arrasate eta Bergara Loiuko aireportuarekin lotzeko autobus zerbitzua jarri dute

**M.B.** | BERGARA

Arrasate, Bergara eta Eibar Loiuko aireportuarekin lotzeko autobus linea berria jarriko du abian Pesak, Mugikortasun Departamentuaren baimenarekin. Azaroaren 1ean hasiko da martxan, egunero-ko zerbitzua izango da eta bi orduan behin egongo da. Lehenengoa 05:15ean abiatuko da eta azkena, 21:15ean.

Arrasatetik (Garibai) Bergarara (Ibargarai) abiatuko da; handik Eibarrera (Egogain) eta autobidea hartuta Loiuraino joango da; irteeren terminalera. Itzuleran kontrako ibilbidea egingo du, helmugen terminaletik abiatuta.

Txartelak erosi ahal izango dira hitzartutako bailarako bidaia agentzietan eta autobusean bertan.

# 58 odol emailek jasoko dute domina domekan egingo duten ekitaldian

Hiru lagunek emaile nagusiaren domina berezia jasoko dute Elgetan

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Domekan, hilaren 16an, ospatuko dute Debagoieneko eta Debabarreneko elkarteek odol emaileei eskerrak emateko bazkaria, Elgetan. Debagoienetik Elgeta, Bergara, Antzuola eta Oñatiko ordezkariak batuko dira eta Debabarrenetik, Mutriku, Mendaro, Elgoibar eta Eibarkoak.

**Meza eta bazkaria izango dute**

12:00etan meza entzungo dute; 13:00etan domina-banatzea egingo dute eta gero, bazkaria, Espaloia Kafe Antzokian.

**Emaile oparoen intsignia**

Dominak banatzeko ekitaldiari dagokionez, Bergarako 28 lagunek jasoko dute: 16k, zilarrezkoa (25 emate); 11k, urrezkoa (40 emate emakumezkoetan, 50 gizonezkoetan); eta Pedro Bengoak Emaile Oparoaren intsignia jasoko du.

Espainiako Odol Emaileen Federazioak ematen duen emaile oparoaren intsignia da hori. 75 emate baino gehiago egin dituztenek jasotzen dute aipatutako intsignia eta Bengoak 80 egin ditu dagoeneko.

Oñatiarren kasuan, 24 dominа jasoko dituzte: 12k zilarrezkoa jasoko dute eta 10ek, urrezkoa. Eta, horrekin batera, Jose Luis Etxeberriak eta Fuente Ferreirok emaile oparoarena jasoko dute.

Etxeberriak 75 emate egin ditu eta Ferreirok, ostera, 77 emate egin ditu dagoeneko.

Antzuolako emaileei dagokienez, lau lagunek jasoko dute domina: bik zilarrezkoa eta beste bik urrezkoa. Elgetakoen kasuan, berriz, bi emailek zilarrezkoa jasoko dute.



300 lagun inguru batu ziren Oñatin eguaztenean. | A.E.

# Guardia Zibilari hemendik joateko eskatu diote ehunka lagunek Oñatiko kaleetan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

*Fan hemendik! Utzi bakean Euskal Herria* lelopean manifestazio jendetsua egin zuten Pilare egunean Oñatin. Antolatzaileak pozik zeuden erantzunarekin eta nabarmendu zuten eskualde osotik joandako jendea bildu zela Oñatin.

Manifestazioa Guardia Zibilaren kuartel paretik pasa zenean bizi izan ziren tentsio une handienak. Kuartelaren parean Ertzaintzaren bi dispositibo zeuden eta kuartelaren kanpoaldean guardia zibilak. Hala ere, ez zen ezer gertatu.

**Oñatitik joatea eskatu dute**

Fan Hemendik batzordeak adierazi zuen manifestazioa egin zutela Guardia Zibila "Oñatitik joatea exijitzeko". Aldi berean, salatu gura izan zuten uda honetan Guardia Zibilak izan duen jarrera "probokatzailea".

# Feria jendetsua Elosuan egin zutena

Azken hamarkadako feria jendetsuena izan zen eguaztenean Elosuan egin zutena. 33. mendi ganadu feria ospatu zuten. Goizean goizetik bazen zer dastatu Elosuan: txorizoa, sagardoa, euskal pastela, gazta, eztia... Balentin Gabilondo antolatzaileak emandako datuen arabera, 125 abere inguru zeuden eta bertako produktuen 80 postu. Giro berotzeko ardura Epelde eta Lutxurdio trikitilariek izan zuten eta bertsotan Beñat Lizaso eta Loidisaletxe ibili ziren.


IRATI GOITIA

# Esperientzia Eskolan izena emateko aukera dago

A.E. | BERGARA

Miguel Altunan egiten duten Esperientzia Eskolan izena emateko aukera dago oraindik ere. Matrikularen zenbatekoa 275 euro da. Izena emateko edo argibideak jasotzeko Miguel Altunako Bizikasi zerbitzura jo dezakete interesatuek: e-mailez *info@bizikasi.com* eta telefonoz 943 76 93 94 (Miren) zenbakian.

Eskolak martitzen, eguazten eta eguenetan izango dira, goizez, eta aurtengo ikasturtean jorratuko dituzten gaien artean honako hauek daude: osasunaren mantentzea eta sustatzea; giza erlazioak; komunikazioa; informatika; literatura; filosofia; psikologia; bioetika; eta artearen historia.

# Pobrezia Zero astea ospatuko dute datozen egunetan

A.E. | ARRASATE

Urriaren 17a pobreziaren eta bazterkeria sozialaren aurkako borrokaren nazioarteko eguna dela kontuan hartuta, hainbat ekintza antolatu dituzte datorren asteari begira Debagoienean.

Hilaren 17an, astelehena, haurrendako puzgarriak egongo dira Aretxabaletan, 17:00etatik 20:00etara. Martitzenean, Arrasateko Kulturaten *Ante la crisis y el empobrecimiento global nuestra propuesta: el decrecimiento* hitzaldia, 19:00etan. Eguaztenean Oñatiko kultura etxean eskainiko dute hitzaldi bera, 19:00etan.

Datorren zapatuan Bizimartxa egingo dute Eskoriatzatik Arrasatera eta ondoren bazkaria Biteri plazan.

# 'Bularretik mintzora' proiektua Arrasaten ere eskainiko dute

A.E. | ARRASATE

Aurtengo ikasturtean Arrasateko Udal Bibliotekak *Bularretik mintzora* proiektua jarriko du martxan. Galtzagorri elkartearen eta Hezkuntza Sailaren laguntza izango dute horretarako.

Irailean zehar, 5 urte arteko haurren irakasle eta hezitzaileekin egin zuten lan Arrasateko ikastetxeetan. Orain, gurasoei begira bi hitzaldi antolatu dituzte: datorren eguaztenean, hilak 19, Juan Kruz Igerabidek *Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura* hitzaldia egingo du Udal Bibliotekan, 18:00etan, eta azaroaren 3an Juan Karlos Alonsok *Haur literaturaren garrantzia haurren garapenean* hitzaldia egingo du, 18:00etan.

**Haurren irakurzaletasuna**

*Bularretik mintzora* proiektua 2007an jarri zen martxan; ordutik hona, hainbat herritara zabaldu da; besteak beste, Aramaiora eta Oñatira.

Haurren irakurzaletasuna bultzatzea da proiektuaren helburua, etxean, liburutegian eta eskolan.

UNED BERGARA
IKASTAROAK
• MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ
Erdi mailako ezagupena dutenentzako.
**Hasiera:** Azaroaren 2an.
**Klase eguna:** asteazkena
**Ordutegia:** 18:15 - 20:45
**Matrikula epea:** Urriaren 22ra arte.
**Informazio gehiagorako:**
Tel.: 943 76 90 33
*info@bergara.uned.es*

Carrascal aroztegia
SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK
Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82
Faxa: 943 10 69 66
*scarrasc_1@infonegocio.com*
ESKAINTZA BEREZIAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA



## ZABALIK



**TXIPI ORMAETXEA**
http://goiena.net/iritzia/

# Biba Xiberoa!

Orain dala aste batzuk, Juan Martin Elexpuruk Goienan Zuberoaren gaiñien idatzi auen. Eta neu be gai beraz nator. Juan Martinek Bergaran Monzon pastorala emon baiño lehenago idatzi auen berie, eta nik ostien (eta bai, Juan Martin, dana ondo juen zoan!).

Azken urtietan zuzenien ikusi barik ninguen pastorala, eta aurten bi bider! Bergarakotik hasitte, ikuskizun ederra izen zan, eta sortu zan girue be oso ona. Pastoralak luze irauten daue (4 ordu inguru), baiñe bat gustora eta "trajerian" sartute dauenien, denbora arin jueten da. Abuztuen Larrainen (batzuetan txarto idatzitte ikusi dot eta esan biher da herrixen izena *Larraine* dala, eta bertakuek *larraintarrak* diela) ikusi nauen pastorala, eta, benetan, hangue ikusgarrixe izen zan. Zuberoa osue ederra izen arren, ez da samurre izengo pastoral bat jokaketako holako parajerik topetie. Zer zan ha!

**"Txikiñe da lurrez, baiñe ez pentsau asteburu baten ezagutuko dozule"**

Gauza asko esan leikez pastoralaz, baiñe horretan itxiko dot.

Zuberoa txikiñe da lurrez (814 km2) eta txikiñague bizilagunez (15.000 inguru). Baiñe ez pentsau asteburu baten ezagutuko dozule. Abuztuen 9 egun emon nittuen han, eta ez nintzen bape aspertu. Mendixe eta naturie maitte badittuzu, aukera itzela dauketzu Zuberoan. Eta, gaiñera, euskerie eta euskal kulturie gogoko badittuzu, badauketzu han zer ikusi eta zer ikasi. Ez bazara iñoz egon Zuberoan, juen egun batzuk pasetan. Ez jatzu garbatuko. Eta pastoral denboran bazoiez, jakizu datorren urteko pastorala be Johañe Bordaxarrek idatzi dauela, aurtengo Monzonena idatzi dauen berberak. Arrokiaga herritxoan jokatuko da, eta Jose Mendiague idazlearen bizitza da gaia.

Amaitzeko, horra oso gustoko doten aurtengo pastoraleko azken kantuaren ahapaldi bat: *MONZON jauna zük bezala / Jarraik dezagün borroka / Estatüek honar dezela / Heben nausiak gü girela!!!*

Gora larraintarrak eta biba Xiberoa!

## USTEAK USTE

**TXOMIN MADINA** | tmadina@goiena.com

# Telebista, antisorgailu berria

Norbaiti entzun diot jaiotza tasek behera egingo badute, telebistarengatik izango dela. Nork gura du *Supernanny*, *Hermano mayor* edo *El Campamento* bezalako saioetako moduko ume bat? Tirano txikiak; gorrotoz betetako nerabeak; hitzen ordez ukabilak erabiltzera ohituak. "Zer egin halako bat tokatuz gero?", da ohiko galdera. Akaso hor dago koska, batzuetan tokatu bai, baina gehienetan egiten joaten direla. Horregatik, hemendik eskerrak Agustini eta Arantxari. Eskerrik beroenak ezetz esan behar zenean ezetz esan zutelako. Eskerrak hor egon direlako, daudelako, eta, espero dezagun, denbora luzez hor egongo direlako. Demanda egiteko ez bada ere...

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## GUTUNAK

# Zer ari da gertatzen Deba ibaian?

**Jesus Maria Barrutia**
Bergara

Gezurra dirudi, bai, baina gure Deba ibaia borrokatzen ari da bere bizitza berreskuratzeko.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago zeregin horretan ez diogula, ez, askorik laguntzen.

Izan ere, badira aste batzuk Bergarako ibaian zebiltzan ia ahate guztiak hil egin zirela.

Bada, aste honetan arrain pilo bat azaldu da hilik (loinak, amuarrainak, angilak, eta abar).

Aitortu behar dut pena handiz ikusi ditudala, baina sentsazio gazi-gozoa izan dudala, ez bainuen uste gure errekan horrelako arrainik egongo zenik.

Kalean jendea haserre.

Zeinek bota du zer?

Ikerketarik egin al da?

Denetik entzun daiteke.

Noiz arte isurketa pozoitsuak?

Eta noiz arte inpunitate hori?

Batzuendako arrazoia sinplea da, euri gutxi egin du azken asteotan eta oso ur gutxirekin dator ibaia.

Txangalako errekatxoan ere oso ur gutxi dago, baina han amuarrainak pozik bizi dira.

Gure eskualdeko eta herriko ingurugiroko arduradunek zer diote honen gainean?

Herritarrek, benetan, esplikazio bat entzun nahi dugu.

# Gu ere joango ginateke hondartzara, zuzenean

**Mikel Errasti**
Oñati

Aukera edukitzea, behinik behin, nahiko genuke. Besterik ez.

Zuzenean joateko hondartzetara, autobus batetik jaitsi, beste bat hartu edo tren bat hartu beharrik izan gabe.

Izan ere, oñatiarrok *kondenatuta* gaude sekulakoak eta bi egiteko Euskal Herriko kostara ailegatzeko.

Guztiok jakingo duzuenez, inguruko herrietan zuzeneko autobusak dituzte Donostiara joateko, esate baterako. Eta kostaldeko beste leku batzuetara, noski.

Baina guk, oñatiar *gizajook*, gurutze-bidea egin behar dugu itsasoko uraz disfrutatu nahi dugun bakoitzeko.

Lehenengo, autobusa hartu behar dugu, Zumarragara, adibidez, eta han, berriz, trena.

Gogaikarria izateaz gainera, garestia ere bada, oso. Eta krisi garai hauetan, pentsa...

Horrekin guztiorrekin, noizko autobus zerbitzu duina oñatiarrondako?

Autorik ez hartzeko eta garraio publikoa erabiltzeko aholkatzen dute agintariek, baina ze preziotan?

Egunen baten iritsiko gara zuzenean hondartzara...

Tira, aurten dagoeneko ez, udazken bete-betean gaudelako, baina ea datorren urterako Oñati *irla isolatu* izateari uzten dion, gai honi dagokionez, behintzat.

Hori espero dugu, behintzat, eta hori eskatzen segituko dugu.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Cruze berria: diseinua, prezioa eta potentzia

## Chevrolet etxeak Cruze modeloa berritu eta auto erakargarri eta potenteagoa sortu du | IMANOL GALLEGO

Krisi garaian, ausardia eta irudimen handien dutenek lortuko dituzte emaitza hoberenak, eta Chevrolet auto etxeak arrakasta lortu nahi duela argi dago. Aurten, zazpi irteera-eskaintza egiten ari da, Chevrolet modelo erakargarriagoak aurkeztuta. Cruze modelo berria berlina bat izan arren, auto gazteek duten izaera bihurria dauka. Linea deportiboek izaera ematen diote, eta, 124 zaldirekin (bere gaman gehien), potentzia handiko eta oso fidagarria den auto bat egitea lortu du Chevroletek.

Bi auto baten barruan; kanpotik begiratuz gero, auto ausart eta deportiboa dela ikusi arren, Cruze berria ez da horretan soilik geratzen. Ingeniariek motor indartsu bat eraiki duten arren, Cruzeren ekipamenduak gama handiagoko auto baten tankera duela esan daiteke, izaera deportiboak duen espiritua alde batera utzi gabe. Indar handiko auto fidagarri baten bila dabiltzanek Cruze berrian topatuko dute bila dabiltzan autoa.


Cruze berria: diseinu joera berriak jasotzen dituen modelo ausarta. | CHEVROLET

### EKIPAMENDU OSOA

Gama bereko gainontzeko autoek baino ekipamendu osoagoa dauka Cruzek. Chevrolet etxeak, auto berrietan, erosotasunaren eta diseinuaren alde egin du. Kanpotik Chevroleten ikur diren joera deportiboek ez dute bezero zorrotzena engainatuko. Cruze ez da gazteentzat soilik egindako autoa.

Barnealdea ikusgarria da. Bezeroa eta haren familia eroso egon daitezen, azken tresneria eta zerbitzu guztiak ditu. Kanpotik erraz antzematen ez den arren, Cruze hazi egin da: 4,51 metro luze da eta bere gamako auto handienetako bat da; datu hori barnealdean erraz nabaritzen da. Ate handi baten bitartez zabaltzen den maletategi handiak (413 litro) edozein familia edo bezeroren beharrak aseko ditu.

Autoak ez dauka detaile faltarik: GPSa, ordenagailua, aire-girogailua... bezeroak gustura gida dezan elementu guztiak ditu, betiere, diseinuarekin bat datorren motor indartsua ahaztu gabe. Horretaz guztiaz gainera, Ipar Amerikako markak ez du ingurumena alde batera utzi, eta, aurtengo atera dituen modelo guztiekin egin duen moduan, Cruze berriak ere CO2 isuria murriztu du.

### CREVROLET CRUZE BERRIA

| | |
|---|---|
| **Prezioa:** 12.250 € | **Bermea:** 3 urte. |
| **Zilindrada:** 1.598 cm³ | **Ordenagailua eta GPSa:** Bai. |
| **Potentzia:** 124 ZP | **Maletategiko edukiera:** 413 L. |
| **Abiadura:** 190 km/h | **Aire-girogailu automatikoa:** Bai. |
| **0-100 km/h:** 12,0 segundo | **Aleaziozko hagunak:** 16". |
| **Airbagak:** gidaria, kopilotua, albokoa eta kortina. | **Bozgorailuak:** 2. |
| **Segurtasun gailuak:** ABS/ EDB/TCS/ESC. | **Irratia:** USB eta MP3 sarrera. |
| **Neurriak:** 4,51 / 1,80 / 1,48 m. | **Sentsoreak:** euri, argi eta aparkatzekoak. |

### GUZTIONTZAKO AUTO BAT

Chevrolet etxeak auto modelo askok lortu nahi dutena egin du: diseinua, erosotasuna eta izaera deportiboa prezio merkean bateratu ditu. Hori guztia, edukiera handiko maletategia daukan eta ingurua errespetatzen duen autoa eginda.

Chevroletek, 100 urte hauetan egin duen moduan, bezeroari aurreratu eta haren nahiak kalitatezko auto baten elkartzea lortu du.

CRUZE 5 ATE.
APROBETXA EZAZU AUKERA BAKOITZA.

CRUZE 5 ATE 1.6
AIRE GIROTUAREKIN
12.250 €




Munduko Txapeldunen motorra, Chevrolet.

Chevroletek Cruze gama handitu du, ausarta eta dotorea den modelo batekin: 5 ateko Cruze. Segurtasuna, barne espazio handia eta aparteko ekipamendua: ordenagailua barruan, abiadura kontrola, euri, argi eta aparkatze sentsoreak, aire-girogailua, koloretako pantaila duen nabigatzailea, iPoda eta MP3a erabiltzeko USB hargunea... (bertsioen araberako ekipamendua). Aukera-aukerakoa!

www.chevrolet.es | Informazioa: 902 303 900 | www.facebook.com/chevrolet.es

CHEVROLET
MAKE IT HAPPEN

GIAUTO Elgoibar | Olaso Kalea, 25 | 943 744 012 · GIAUTO Olaberria | B° Yurre, Polígono Karobi, s/n | 943 885 150 · www.giauto.es

Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 6,6-7,4. CO2 emisioa (g/km) 153-174. Gomendatutako prezioa penintsulan eta Balear uharteetan, Cruze 5 ate 1.6 LS + A.G autoarentzat (BEZa, matrikulatze zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hil amaiera arte.

**Asier Altuna 'Kixi'** | 'Bertsolari' filmeko zuzendaria

# "Bertsolaritza oso femeninoa eta oso gaztea da, neskaz beteta daude bertso eskolak"

- Gaur estreinatuko da 'Bertsolari' zinema areto komertzialetan; tartean, Amaia antzokian
- Malkoak eta poz aurpegiak ikusi ditut bertsolari eta bertsozaleengan filma ikusi ostean

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Zinemaldian arrakastaz aurkeztu ostean, gaur, egubakoitza, estreinatzen da zinema areto komertzialetan *Bertsolari*, Asier Altunaren lehen bakarkako film luzea. Gurean, Arrasaten. Amaia antzokian izango dira Altuna bera eta Jon Sarasua, filmeko protagonistetako bat.

**Jo eta ke *Bertsolari* filmaren aurre-estreinaldiarekin, ezta?**

Bai, jendea zinema aretoetara erakartzeko ahalegin guztiak egiten dihardugu, ez da samurra -eta, eguraldi honekin, gainera… Filma ikustera etorri dena oso gustura atera da, baina, akaso, zailena horixe da, zinema aretoetara eroatea ikusleak.

**Gaur helduko da Arrasatera, gainerako zinema areto komertzialetara bezala, eta bertan izango zaitugu, Jon Sarasuarekin batera.**

Bai, bailarako bi, Amaia antzokian. Filmaren ostean han izango gara ikus-entzuleen galderak erantzuteko prest. Jon Sarasuak protagonismo handia hartu du filmean. Asko dauka esateko. Testigantza oso interesgarriak jaso ditut Sarasuaren ahotik. Elkarrizketa luzea egin nion, baina beste batzuei ere bai; azkeneko muntaian, haren berbak nabarmendu dira, ordea.

**Zinemaldian estreinatu eta kritika onak jaso zenituzten. Pozik?**

Kritikak oso onak izan dira. Ikusi duenari gustatu egin zaio; hala aitortu du. Erraz ikusten den filma da. Hasieratik bukaerara, segituan igarotzen da. Hunkitu egiten du eta ikusi eta entzun duenarekin harrituta irteten da jendea zinema aretotik. Hala sumatu dut filma ikusi dutenen aurpegietan. Bertsolaritzaren gaineko filma da eta aurreiritziekin joan daiteke norbait zinema aretoetara, baina irteterakoan gustura pasatu duela nabari dut.

**Euskal Herritik kanpoko kritikariek zelan hartu zuten?**

Askok aitortu didate, lehenengo aldiz, bertsolaritza beste begi batzuekin ikusi dutela.

**Zer esan dizute bertsolaritza ezagutu ez, edo oso bertsozaleak izan ez, eta filma ikusteko aukera izan dutenek?**

Batzuk harritu egiten dira bertsolarien jarduna existitze hutsarekin. Madrilgo jendearekin test modukoak egin genituen, ikusteko ze iritzi zuten, eta jendeak harriduraz hartu zuen. Baina batek edo bestek aipatzen zuen bere herrian, bere amak ere aipatzen ziola bazela ahozko tradizioan, bertsolarien antzeko zerbait… Harritzen dira BEC aretoko finaleko irudiekin: 14.000 lagun bertso saioa jarraitzen egun osoan… Bertsoak, irudi bereziak, metaforak… erabili ditut lortze aldera ederrago edo erakargarriago egiteko.

**Bertsolariek eta bertsoaren mundukoek txalo artean hartu zuten.**

Bai, hunkituta zeuden erabat, eta oso eskertuta. Opari moduan hartu dute bertsolariek. Oso dokumentu beharrezko moduan hartu dute, munduan ezagutzeko bertsolaritza zer den. Besarkadak, malkoak, poz aurpegiak… ikusi nituen bertsolari eta bertsozaleen aldetik estreinaldi egunean Zinemaldian.

**Euskal Herritik kanpo, non estreinatuko da?**

Urriaren 14an estreinatzen dugu Euskal Herrian eta Madrilen eta Bartzelonan. Bi kopia daroatzagu hara. Zinema areto independentea programatzen den gelak dira.

**Aipatu izan duzu edozeinek ulertzeko eta gustura ikusteko modukoa dela filma. Zergatik?**

Ez nekien zelakoa aterako zitzaidan. Bertsolaritza ezagutarazi nahi nuen eta ezagutzen ez dutenengana heldu. Hortik aurrera, ekinak markatu dit bidea. Hasieran, Andoni Egaña aukeratu nuen filmeko protagonista izateko. Balio bat eman nahi nion filmari eta hori Egañak eman zidan. Kontua zen txapela galduko ote zuen. Hortik aurrera, testigantzak grabatu ahala, gidoia lantzen joan naiz. Sarasuak esaten bazidan bertsolariek bertigoa bilatzen dutela, bada, ni hori irudi bitartez islatzen saiatzen nintzen… Hala osatu dut pelikula. Muntaiaren denboran idatzi nuen gidoia.

**Bat-batekotasuna?**

Bai, dokumentalak uzten dizu hori egiten. Baina, behin muntaiara ailegatzen zarenean, gidoia zehatz jarraitu behar duzu; bestela, kaos bihur daiteke eta muntatzailea zoratu egin daiteke.

**Manu Muniategiandikotxea bergararrak egin du *Bertsolari* iragartzeko kartela…**

Bai, Manurekin berriketa asko egindakoa naiz, baina ez dut inoiz lan egin harekin. Eta oso gustura geratu naiz egin duenarekin. Oso kartel polita, grafikoa, egin du: kartela dago zuri-beltzean egina, apaingarririk gabea, doia da. Eta islatzen du amildegia, funanbulista hariaren gainean… Ondo islatzen du filmaren eta bertsolaritzaren espiritua.



Asier Altuna, Arrasaten, joan den astean. | ENEKO AZKARATE

> **"Dokumentu beharrezko moduan hartu dute filma bertsolariek"**

> **"Plazer hutsa izan da Miren Amuritza bertsolariarekin lan egitea"**

> **"Balio bat eman nahi nion filmari eta hori Egañak eman zidan"**

> **"Beste film bat egin beharko dut, aurki, hemendik bizitzen jarraitu nahi badut"**

**Egañaren ordez Lujanbiok txapelketa nagusia irabazi izanak gehigarri bat eman dio filmari?**

Egia esan, bai. Historikoa izan zen azkeneko txapelketako finala. Adina, generoa… dena zen berria txapeldunarengan. Maialen Lujanbiok, berez ere, baditu konnotazio bereziak… Egañak, 16 urteren ostean, txapela galdu izanak eman zion balio erantsia filmari, baina, bestalde, azken buruz burukorako sailkatu ez izanak pena handia eman zidan. Filmeko protagonista, azken txandatik, klimaxetik, kanpo.

**Miren Amuritza deskubrimendua izan da?**

Bertsolaritza, gaur egun, da oso femeninoa eta oso gaztea. Bertso eskoletan-eta neskak dira nagusi. Bertsolaritza emakumeena da gaur egun. Eta hori irudikatzeko, Miren Amuritza oso aproposa izan da. Plazer hutsa izan da harekin lan egitea.

**Nondik lortu dituzu sosak proiektu honi aurre egiteko?**

Euskal erakundeen babesa izan dugu, Espainiatik-eta ez da etorri ezer. Eusko Jaurlaritza, ETB eta Kutxa hasieratik sartu dira proiektuan. Eta eskerrak! Bestela, ez genuen aurrera egingo. Horien ondoren etorri dira Vital Kutxa eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Pelikula handinahiz egina da, zentzu onean; hau da, aurrekontu justuarekin, baina baliabide tekniko egokiak erabilita: buru beroak…

**Telmo Esnalek ere Zinemaldian estreinatu zuen bere lehen bakarkako luzea. Gustatu zaizu *Urte berri on, amona!*?**

Bai. Oso polita izan da aurtengo Zinemaldian gu bion filmak aurkeztu izana. Nor bere proposamenekin, lan txukunekin, Zinemaldian… ezin gehiago eskatu.

**Zinema euskaraz egiteak aukerak murriztu ala zabaldu egiten ditu?**

Bueno, Madrilen ez dabiltza film askorik egiten. Hemen egin dira apur batzuk. Hizkuntzarena aukera naturala da. Euskaraz pentsatzen dugu, euskaraz bizi gara eta hala planteatzen ditugu gure proiektuak ere, beste ezeri begiratu barik. Eta, oraingoz, aukera izan dugu lan egiteko.

**Etorkizunari begira, proiekturik bai esku artean?**

Film laburrak egin nahi ditut, asko gustatzen zait-eta, baina film luzeren bat ere egin beharko dut hemendik bizi izaten jarraitu nahi badut. Orain, hala ere, *Bertsolari* saltzearekin badaukat nahiko lan.

ARRASATE

# Loreak eta bizikletendako tokia falta dira Amaian

## Hiru hilabetez lanean egon ostean, zabalik daude ataria eta aparkalekua



Oinezkoendako toki handiagoa du atari berriak, baita egurrezko eserleku handi bat ere. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Arrasateko Amaia Udal Antzokiko atariak itxura berria du; hiru hilabete eman dituzte Bergarako Artzamendi enpresako langileek lanean, eta egunotan dabiltza azken ukituak ematen. Udaleko Obretako teknikari Izaro Agirreren esanetan, berdegune berrietan loreak jartzea eta obretako materiala jasotzea baino ez da falta; bizikletendako aparkalekua ere egunotan iritsiko da.

Uztailaren 11n hasi zituzten obrak. Ordutik hona, sarrera txukundu egin dute, oinezkoendako gune zabala eta berdeguneetxoak sortuta. Horretaz gainera, eraikinera sartu ahal izateko irisgarritasun lanak egin dituzte. Uztailean izan ezik, obrek ez dute Amaia antzokiko kultura eskaintzan eragin zuzenik izan. Izan ere, irailerako aterpeko sarrera libratu zuten eta ikusleak bertatik sar zitezkeen.

Inguruko aparkalekuak ere erabiltzeko moduan daude. Horren harira, hau esan du Agirrek: "Jatorrizko moduan egiten zen gisara erabil daiteke Ferixalekukoa: Otalora kaleko Amaia antzokiko sarreratik gertuen dagoen aldetik sartu behar dute, eta Uarkape aldetik irten. Aparkaleku kopuruari dagokionez, ez dago aldaketa handirik: atari parean bizpahiru baino ez dira galdu".

### Amaiako bilgunea

Berdegunetxoez gain, hiru handkadun farola "berezia" eta eskultura baten antza duten xaflak jarri dituzte kanpoaldean. Azken horren harira, honakoa esan du Agirrek: "Amaia antzokiaren ikur edo bilgunea izan daiteke hori; xafla metaliko bi dira, batean Amaia antzokiaren izena eta Arrasateko Udalaren armarria azaltzen dira. Farola ere berezia da. Proiektuan zeuden biak aurreikusita". Lorezaintza lanei dagokienez, Agirrek azaldu du Maritxu Kajoi pasatzen utzi dutela loreak jartzeko.

Amaia antzokia txukuntzeko proiektuaren harira, bi fasetan egiten dituzte lanok: urte hasieran, igogailua eta leihatila berria jarri zituzten. Txarteldegi handiago eta erosoagoa jarri dute eta irisgarritasun baldintzak betetzen ditu. Lan horien aurrekontua 100.000 euro pasatxo izan zen, eta Ulahi-Orona enpresa arduratu zen horretaz.

> **DATUA**
>
> **167.610**
>
> EURO
>
> Arrasateko Udalak Amaia antzokiko ataria egokitzeko bideratuko duen diru kopurua da hori.


Ferixalekuko aparkalekua erabilgarri dago. | MIRIAN BITERI



**JOSEFINA SAEZ BILBAO**

"Ondo ikusten dut. Hobetzea den neurrian, oso ondo iruditzen zait egiten den guztia. Oinezkoendako toki handiagoa utzi dute, hobeto dago orain. Toki ona da".



**BERNABE ARRESE**

"Oso gustuko dut; loreak jartzea baino ez zaie geratzen ikusgarriagoa izan dadin. Amaian batzar eta bestelako ekintza asko egiten dira, eta horrelako ataria behar zuen".



**MILA BALENTZIAGA**

"Orain politago dago. Lehen, toki txikia zegoen, eta, horretaz gain, ataria ere zahartuta zegoen. Oso polita jarri dute. Eserlekuarekin ere konforme nago".


LATINDAR DANTZEN HASTAPEN IKASTAROA
Merengea
Salsa
Bachata
Informazioa
Uharkape 2, behea
Tel.: 943 77 20 87
IRUDI SPORT
www.irudisport.com

# Besaidek antolatuta mendi hamabostaldia

## MTB martxarekin ekingo diote hamabostaldiari, eta Txikonen eta Iñurrategiren proiekzioak izango dira gero

IRATI GOITIA | ARRASATE

Besaidek antolatzen duen mendi hamabostaldiko lehen hitzordua zapatu honetan da, hilak 15. Hain zuzen, mendi bizikleta martxarekin emango diote hasiera. Dagoeneko ospea hartu duen martxa da, eta txirrinduzale asko elkartzen dira proban; iaz 350 lagun inguru izan ziren.

**Proiekzioak Kulturaten**

Hamabostaldian, bi emanaldi izango dira Kulturateko areto nagusian: Alex Txikonena eta Alberto Iñurrategirena.

Alex Txikon lemoarra ezaguna da *Al filo de lo imposible* programan kamera lanak egin izan dituelako eta baita Edurne Pasabanen azkenengo zortzimilakoetan harekin izan delako. Entzunak dira baita Txikonek Himalaian neguan eginiko saiakerak. Hain zuzen, horren inguruan hitz egingo du eta baita Makaluko mendebaldeko ertzetik eginiko saiakeraren inguruan ere. Txikon ez da gailurzalea, eta gailurra egiteko modu zailengatik da interesgarria zehazki. Horixe erakutsiko du urriaren 18an egingo duen proiekzioan, 19:00etan.

Alberto Iñurrategik, bestalde, mendizaletasunaren eta lehiakortasunaren inguruan jardungo du. *Porrotaren alde* da haren hitzaldiaren izena, eta buruan darabilen hausnarketa bat plazaratuko du. Hizpide izango du mendizalea gero eta lehiakorragoa bilakatu dela, eta kosta ahala kosta gailurra lortzea izaten dela haren nahia.



Alex Txiko argazkiko Gasherbrun mendira eginiko saiakeraz jardungo da. | GOIENA

**Beteranoen martxa**

Bestalde, urriaren 30ean izango da urtero egiten den beteranoen martxa. Aurten, Mutrikuko klubak antolatzen du eta Besaidek autobusa jarriko du hara joateko. Izena emateko Besaideko egoitzara joan behar da urriaren 24an, 25ean edo 26an, 19:30etatik 20:30etara.

### Udalak Garagartzako bi ortu ekologiko berradjudikatu ditu

Uztailaren bukaeran egin zieten uko ortu ekologikoei bi herritarrek, eta horiek berriz adjudikatzea onartu du Toki-ko Gobernu Batzarrak. Itxaron-zerrendan zeuden lehen biek hartu dituzte ortuak, 20 urterako. 2009ko azaroan adjudikatu zituen Udalak Garagartzako 80 ortu ekologiko –beste zazpi Udalak erabiltzen ditu.

### 'Los Pitufos' eta 'Cuidadores' filmak Amaia Udal Antzokian

Haurrendako *Los Pitufos* animazio pelikula eskainiko da domekan Amaian, 17:00etan. Colin Brady zuzendariak pantaila handian ematen die bizia izaki urdinei.

Hilaren 18an *Cuidadores* dokumentala ikusteko aukera izango da. Oskar Tejedor zuzendariak endekapenezko gaixoak zaintzeaz arduratzen direnen bizimoduak erakusten dizkigu filmean.

**Lander Juaristi** | Txatxilipurdiko gazteen saileko arduraduna

# "Guztion artean sortuko dugu denona izango den erdiguneko gaztegunea"

## Gaur 18:00etan irekiko ditu ateak erdiguneko gazteguneak; sormenerako toki izatea da nahia

A. ARANBURUZABALA / I.G. | ARRASATE

Gaur irekiko ditu ateak Pablo Uranga kaleko gazteguneak. Bertan, Txatxilipurdiko hezitzaileak ibiliko dira hezitzaile lanetan eta gu Lander Juaristirekin izan gara, Txatxilipurdiko gazte saileko arduradunarekin.

**Zein da gaztegunearen funtzioa?**

Arrasateko Udalak aspalditik zuen proiektua da. Gazteek asteburuetan euren aisialdirako hutsunea zutela ikusi zen, eta hori betetzera dator gaztegunea. Nahia da 12-17 urte bitarteko gazteek leku bat izatea asteburuetan Arrasaten, erdigunean.

**Hala ere, aterpe bat baino gehiago izango da, ezta?**

Alde batetik, aterpe bat da. Euritik eta hotzetik babestuta, lasai egoteko gunea. Gure nerabezaroan askok igarri genuen falta hori; a ze hotza pasatu dugun guk kalean... Beraz, horrelako aterpeak behar dira eta horretarako izango da. Hala ere, guk leku bat baino gehiago eskaini nahi dugu. Parte hartzeko proiektu bat, gauzak sortzeko proiektu bat eskaini nahi dugu. Horretarako izaten dira bertan hezitzaileak: gazteak gauza berriak sortzera eta probatzera bultzatzeko.



Lander Juaristi. | GOIENA

**Hain zuzen, aurtengo leloa da: *Zuk proposatu, zuk antolatu*.**

Hori da gazteekin egin nahi duguna. Euren ideietatik eta ametsetatik abiatuta gauzak sortu nahi ditugu, eta horretan gabiltza azken urteotan. Gazteekin gauza ezberdinak egiten saiatzen gara.

> **"Gazteek gauza berriak sortzea eta probatzea bultzatuko dugu"**

**Nolakoa da gaztegunea?**

Gure asmoa ez da izan prestatutako lokal bat eskaintzea gazteei. Lokala ez dago guztiz bukatuta. Esaterako, ping-ponga eta mahai-futbola egongo dira, baina oraindik muntatu barik daude. Gure asmoa gazteekin muntatzea da. Paretak ere eurekin margotu nahi ditugu. Guztion artean sortuko dugu denona izango den lokala.

Gainontzean, bi gune berezi ditu: topagunean, agertokia, sofak, ordenagailuak eta tailerrak egiteko gunea daude; eta gune aktiboan, elem entu ludikoak kokatuko ditugu.

**Zein da gazteguneak izango duen funtzionamendua?**

Bada, lantalde berezi bat sortu dugu lau hezitzailek osatua, eta euren papera gazteekin egotea eta eurekin gauzak antolatzea izango da. Gazteguneak egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan irekiko ditu ateak eta ez da izenik eman behar, ezta kuotarik ordaindu behar ere. Gazteak nahi dutenean sartu ahal izango dira. Guk euren nahiak gauzatzeko txoko bat eta baliabideak emango dizkiegu.

### Pintxoak egingo dituzte zapatuko baserritarren azokan

Herriko baserrietako sasoiko produktuekin pintxoak egingo dituzte zapatu goizean Seber Altuben, urriko baserritarren azokan. Bezeroen artean txartelak banatuko dituzte pintxoak dastatzeko eta eguerdian produktuz betetako saski bat zozketatuko dute erosleen artean. 09:00etatik 13:30ak arte egingo dute azoka zapatuan.

### Urriaren 24an hasiko den taila ikastaroan izena eman daiteke

Tailagin Elkarteak ikastaroa antolatu du. Taila ezagutzeko asmoa dutenentzat aukera ezin hobea da, hasierako mailakoa da-eta ikastaroa. Urriaren 24tik aurrera izango dira eskolak. Izena emateko deitu 620 17 42 55 (Jose Mari) edo 616 23 81 74 (Gregorio) telefono zenbakira.







**Maite Agirre** • Amagara estetika zentroko arduraduna

# "Uda atzean utzita gorputza eta aurpegia zaintzeko ordua da"

*Gakoa da azala sakontasunez birsortzea, hidratatzea eta indartzea; askotariko tratamenduak erabiliz azalaren zahartze goiztiarra ekidin daitekeela esan digu Arrasateko Amagarako arduradunak*

**Zergatik da horren garrantzitsua uda ostean azala tratatzea?**

Azalaren zahartze goiztiarra eragiten duten faktore asko daude uda partean, eta hori dela -eta, azala behar bezala izateko gogor egin behar dugu lan. Batetik, ingurumenarekin lotutako agenteak daude; eguzkia larregi hartzeak deshidratazioa, orbanak eta gizentzea dakar. Bestetik, dieta ez orekatuak egiteko ohitura dugu udan, eta horrek pisu igoera eta azalen oxigenazio gutxi eta intoxikazioa eragiten du. Horretaz gainera, garai horretan alkohol eta tabako kontsumoa handitzeko joera dago, eta horrek erradikal askeen handitzea eragiten du; hain justu ere, zelula -egituran kalte eragiten duten molekula horiek azalaren zahartze goiztiarra eragiten dute.

> "Eguzkia larregi hartzeak deshidratazioa dakar"

> "Etxean tratamenduak erabiliko ditugu egunero"

**Eta honen aurrean zer egin behar dugu?**

Askotariko tratamenduak konbinatzea proposatzen dugu. Horiek nahastuz bezeroen azalean agertzen joaten diren askotariko arazoak konpontzen ditugu, eta emaitzak hobeagoak izan daitezela lortzen dugu.

**Zer nolako tratamenduak dira horiek?**

Alde batetik, argitasuna galdu, orbanak edo gizentzea duten azalendako kabinen tratamenduak gomendatzen ditugu. Argi pultsatuaren laserra eta askotariko peeling erabiliko genituzke azalaren distira berreskuratzeko. Urte gehiago eta tonurik ez duten azalendako, ostera, indartzeko laserraz gain, elektroestimulazioa ere badugu. Horretaz gainera, elektroporazioarekin produktu estimulagarriak azalean sakonago sartu daitezela lortuko dugu. Aipatutako tratamenduez gain, etxean eguneroko tratamenduak erabiltzeko ohitura izan behar dugu, azala hidratatzen eta birsortzen duten produktuekin; bitaminadunak edo kolagenoa dutenak izan daitezke horiek.

**Hortaz, azala egunero zaindu beharra dago…**

Bai, hala da. Askotan entzun dut ur asko edanda eta 8 orduz lo egiten lortzen direla gauzak. Gezurra da hori. Horretaz gainera, ez dugu ahaztu behar, bikinia ostera ere jartzeko urtebete falta bada ere, gorputza etengabe zaindu behar dugula. Horren harira, udan zehar hartutako pisua kentzeko eta lehengora bueltatzeko, elikadura osasuntsu eta orekatua jarraitu behar dugu; osagarri moduan, ahal bada, egunero kirola egingo dugu eta neguan kabinan egingo du mantenu tratamendua.

**Amaitu aurretik, ze beste zerbitzu eskaintzen duzue?**

Cristina Arruabarrenak (6073 elkargokide-zenbakiduna) kolaborazioa eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. Medikuntza Estetikoan espezialista da. Arruabarrenak, besteak beste, Bioplastika bezala ezagutzen den teknika erabiltzen du aurpegia birmoldatzeko. Edertasun aurpegi-lerroak eta angeluak sortzeko egokia da, tratamendu eta material xurgatzaileak erabiltzen dira, seguruak dira. Horretaz gainera, gizonezko nahiz emakumezkoendako balio dute.

> "Elikadura orekatua jarraitu behar dugu"

> "Askotariko tratamenduak konbinatzen ditugu"



Maite Agirre, Amagara estetika zentroan. AMAIA TXINTXURRETA


## Aurpegia eta gorputza zain itzazu!

**Askotariko tratamenduak eta promozio bereziak ditugu.**

## Informa zaitez!







Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

nº R.P.S. 297 / 05.

# Aranzadi Ikastola: amaiera borobila 40. urteurreneko ospakizunei

## Udal Pilotalekuan egindako bazkarian 450 lagun elkartu ziren zapatuan

E. AZKARATE/E. MENDIBIL | BERGARA

450 lagun elkartu ziren zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan Aranzadi Ikastola sortu zeneko 40. urteurrena ospatzeko. Aita -ama, maisu-maistra, ume, eta abar elkartu ziren otorduan. Aurretik, goizean, hainbat jarduera egin zituzten ikastolan, umeendako bereziki; eguerdian, berriz, hamaiketakoa, eta, ostean, trikitilariekin poteoa.

Bazkalostean, bestalde, kantu saioak, gurasoek prestatutako abesbatzen jaialdi mundiala, *Ze Pozik Gaur!*, eta dantzaldia DJ Julenekin. Mikel Laskurain aktore eta Aranzadi Ikastolako ikasle izandakoak egin zituen zeremonia-maisu lanak.



Umeak, gaztetxoak eta helduak elkartu ziren zapatuan egindako bazkarian. | JOSETXO ARANTZABAL

**Ikastetxe heldua**

Aranzadi Ikastola sortu zela 40 urte bete ziren joan den ekainaren 19an, baina egun hartan ezin izan zen ospakizunik egin Udal Pilotalekua ez zegoelako libre. Ikastolako arduradunek ospakizunak urriaren 8an egitea erabaki zuten, bide batez IV. Ikastola Egunarekin bat eginda.

Zalantzarik gabe, ikastolarendako data garrantzitsua da 40. urteurrenera iristea. Besteak beste, azken urteotako ibilbidearen ondorioz ikastetxe heldua delako, zenbaki borobila betetzen duelako eta, gainera, berrikuntzak ekarri dituelako urteurrenak: Haurtxoarekin batzeko akordioa, obra hastea eta Poligonoko eraikina lagatzeko akordioa, berrikuntza pedagogikoak euskal curriculumaren inguruan eta beste hainbat.

Esan bezala, amaiera borobila eman zieten ospakizunei zapatuan. Antolatzaileak pozik azaldu dira antolatutako ekitaldietan jasotako erantzunarekin.



PEDRO GARITANO

## 1936an jaiotakoen ospakizuna Donostian

1936an jaiotako bergararrek ospakizuna egin zuten joan den urriaren 2an. Eguraldia lagun, 35 bat lagun batu ziren, aurten 75. urte egiten dituztela ospatzeko. Donostiako Costa Vasca hotelean egin zuten bazkaria eta egun ederra igaro ondoren Bergarara itzuli ziren. Zorionak, guztiei, eta eutsi sasoiari!

## OHARRAK

**ESPOLOIAN JAIAK BIHAR**

Auzotar talde batek antolatuta, ospakizunak izango dituzte zapatuan Espoloian. Goizetik gauera hainbat ekitaldi iragarri dituzte. Eguerdiko hamabietan umeendako jolasak egongo dira, jarraian auzo bazkaria eta jolasak, karaokea izango da gero eta iluntzean, 20:30ean triki-poteoa dago iragarrita eta gauean Elvis Caino disko-jartzailearen saioa. Goizeko bostetan, azkenik, kulero eta galtzontzilo lasterketa.

**EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA**

Ekonomia jardueren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 18ra arte dago zabalik. Ondoren, errekarguaz kobratuko dute. Erreziboen ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxearen bidez bidali eta kobratuko zaie. Besteek etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria urriaren 31 baino lehen. Horrela izango ez balitz, Kontu-hartzailetzara jo beharko dute.

**1944AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 22AN**

Urriaren 22an bazkaria izango dute Zumelagan 1944an jaiotakoek. 13:00etan elkartuko dira Irala kalean. Izen-ematea urriaren 15era arte: 943 76 21 86 (Ana Mari), 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia) edo 943 76 10 32 (Florita).

**1962AN JAIOTAKOEN AFARIA AZAROAREN 5EAN**

Azpeitxi jatetxean afaria egingo dute 1962an jaiotako bergararrek, azaroaren 5ean. Izen-ematea (10 euroko aurrerapena) Ariznoan, Deportivon edo Azpeitxin. Afari egunean Ariznoan elkartuko dira, 20:00etan.

**1947AN JAIOTAKOEN DEIA AZAROAREN 12RAKO**

1947an jaiotakoen afaria azaroaren 12an Agorrosingo tabernan, 21:00etan. Euskadiko Kutxako 0091140069 kontuan 45 euro ordaindu behar dira azaroaren 7a baino lehen.

**1953AN JAIOTAKOEN AFARIA AZAROAREN 19AN**

1953an jaiotakoen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxa jatetxean. Izen-ematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio), azaroaren 17a baino lehen.

**EUSKARA ESKOLAK ETORKINENDAKO**

Euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaro berezi bat antolatu dute Bergarako Udalak eta Udal Euskaltegiak, HABErekin elkarlanean. Euskal Herrira etorri berriei egokitutako metodologia eta materiala erabiliko dute. Izenematea (10 euro) Udal Euskaltegian. Argibideak bertan, 943 76 44 53 telefonoan.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

UGARTE AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

# Olimpio Medori italiarraren emanaldia Santa Marinan

Organo zikloaren barruan, Elena Laka eta Leo Juaristiren emanaldia Azkoitian

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Nazioarteko Organo Kontzertuen XII. zikloarekin jarraituz, Olimpio Medorik emanaldia egingo du bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan. Medoriren maila nabarmendu dute antolatzaileek; organoan espezializatu zen Perugiako F. Morlacchi Musika Kontserbatorioan eta Ferraran, berriz, musika diziplinetako titulua jaso zuen. Nazioartean ospe handia duten musikariak izan ditu irakasle, T. Koopman, H. Vogel, M. Radulescu, M. Chapuis eta J.B. Christensen tartean.

Europan eta Latinamerikan aritu da Medori bakarlari, jaialdi nagusienetan gonbidatuta, eta ganbera-taldeetan, koroetan eta orkestretan ere jo izan du, balio eta interes historiko bereziko musika-tresnekin. Aldian-aldian kolaboratzen du Florentina Ganbera Orkestrarekin, Fisoleko Musika Eskolako Vincenzo Galilei Orkestrarekin eta Musica Ricercata taldearekin. Hainbat grabaketa egin ditu eta horien artean interes berezikoa da J. U. Steiglederren *Ricercar Tabulatura* obraren grabaketa. Lehen aldia zen lan hori grabatzen zela eta Florentziako SS. Annunziata basilikan, Domenico di Lorenzo da Luccaren (1509-21) organo monumentalarekin egin zuen grabaketa. Gaur egun Florentziako San Filippo Neri elizako organista titularra da Medori.



Olimpio Medori organo jolea Santa Marinan izango da zapatuan. | GOIENA

**Laka eta Juaristi Azkoitian**

Bergarako Musika Eskolako Organo Eskola 2009an jarri zuten abian. Aitor Olea organo irakaslea izan zen bultzatzaile nagusia eta gaur egun 10 ikaslek dihardute. Harrobiaren mailaren lekuko, Leo Juaristi eta Elena Laka ikasleek aurtengo nazioarteko zikloan hartuko dute parte. Biek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundearen parrokian, 11:00etan.



Elena Laka eta Leo Juaristi. | MUSIKA ESKOLA

## NIRE USTEZ



IOSU ELORTZA

### Udako hilabeteak

Udako hilabeteak benetan bitxiak izan dira. Egunak eguzkirik ikusi gabe pasatu arren, izugarriak, ezin hobeak.

Opor kontuak ahaztuta, egunerokora ohitu gara. Bazirudien egoerak hobera egingo zuela; pentsa, eguzkia ere irten zen bi astez jarraian. Ametsak amets, errealitatea bestelakoa da. Honek ez du amaierarik, epe motzera behintzat. Udalak itota, diputazioak zuloz josita eta estatua zutik mantentzeko arazoekin. Atenasko akropolia jada ondoratze bidean da, ikusiko dugu Alcalako atearekin zer gertatzen den…

Bata bestearen aurka gaizki esaka aritzen diren horiek behingoz lanean hasiko balira, orain gauza hauek kontatzen arituko ez nintzatekeelakoan nago. Baina tira, seguru nago udako bizipen eta momentu zoragarriak gogora ekarriz, arazoei aurre egiteko beharrezko indarra aterako dugula.

Itxaropentsu etorkizunera begiratu beharra daukagu, ziur nago eta, eguberriek mahai inguruan opatzeko albiste pozgarriak ekarriko dizkigutela. Bitartean, segi borrokan, eta asko eskatzea ez bada, aurrezten saiatu. Baina argi ibili desjabetze eta murrizketa garai hauetan, Joseba Sarrionandiari saria ere kendu diote eta … auskalo zertan gastatzeko.

Disfrutatu asteburuaz lagunok. Espoloiko jaiak eta Udal Musika Bandaren kontzertua dituzue aukeran… Plan hoberik bai, ala? Eutsi goiari!

**"Itxaropentsu etorkizunera begiratu beharra daukagu"**



## Berlingo maratoian

Argazkian agertzen den boskoteak Berlingo maratoian hartu zuen parte irailaren 26an. Argazkian, goian, Jorge Garin, Ibon Bilbao eta Jabi Ibarra daude. Makurtuta, berriz, Joseba Sagarna eta Antonio Verguizas. 40.000 lagunek hartu zuten parte eta maratoiko munduko errekorra egin zuen Patrick Makau kenyarrak. Zerikusia izango zuten bergararrek ere...

## OHARRAK

**UMEENDAKO ANTZEZLANA**
Bihar, zapatua, Glu-Glu Producciones taldearen eskutik *Arratoitxo pinpirina* antzezlana izango da Zabalotegin, 18:00etan. Sarrerak 3 eurotan izango dira eskuragarri.

**BANDAREN KONTZERTUA**
Udal Musika Bandak emanaldia egingo du etzi, domekan, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

**NAFARROA OINEZ**
Domekan, urriaren 16an, Tafalla ospatuko den Nafarroa Oinez -era joateko autobusa antolatu du Jardunek. Txartelak 15 eurotan salgai (13 euro Jarduneko bazkideendako). Argibideak 943 76 08 19 telefonoan.

**THE FOXY LEIRES TARTUFON**
Jimmy Hendrixen kantuak jotzen dituen Rhe Foxy Leires Bilboko taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Tartufon, 23.00etan. Sarrerak, 5 eurotan.

**ERRETIRATUEN HAMABOSTALDIA**
Kultur hamabostaldiari hasiera emango dion hitzaldia Felix Garitano apaiz bergararrak egingo du astelehenean, hilak 17, erretiratuen egoitzan, 18:30ean.

**BERTSO AFARIA ARTATSEN**
Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusekin bertso afaria Artatse elkartean urriaren 22an, 21:00etan. Txartelak Arranon salgai, 20 eta 16 eurotan.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



EBA ligan jokatuko duten jokalariak eta arduradunak, uztailean egindako aurkezpenaren ondoren. | GOIENA

# Saskibaloiari bultzada emateko bazkide kanpaina

## Gaur egingo dute aurkezpen ekitaldia Foru plazan, 19:00etan

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Urriaren 23an hasiko dute EBA txapelketa, eta gogor entrenatzen dihardute jokalariek. Era berean, igoeraren alde egin zutenetik, gogor lanean dihardute saskibaloiko zuzendaritza batzordekoek taldearen aurrekontua estaltzeko. Eta lan horretan herritarren laguntza behar dute: bazkide kanpaina aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, plazan. "Irudi erakargarria egin dugu kanpainarako eta gaur aurkeztuko dugu. Herritarrek emandako laguntza biziki eskertuko dugu", esan digute saskibaloi sailekoek.

### Abantaila asko

Adinaren arabera bi bazkide txartel egingo dituzte: 14 eta 18 urte artekoendako txartelak 15 euro balioko du eta helduenak, 30 euro. Prezio horren barruan sartzen dira Sustrai Aloñak Zubikoan jokatuko dituen 12 partiduetako sarrerak.

Dena den, saskibaloiko bazkide egiteak beste hainbat onura ere baditu: batetik, bazkide egiten diren unean Sustrai fruta-dendan gastatzeko bost euroko bonua jasoko dute; bestetik, etxean jokatzen diren partiduetan beste hainbat deskontu zozketatuko dituzte; eta azkenik, Lagun Arok etxean jokatzen dituen partiduetarako bina sarrera zozketatuko dituzte bazkideen artean. "Baskoniaren partiduetarako sarrerak lortzeko lanean gabiltza. Negoziaketak ondo badoaz, Buesa Arenako partiduetarako bi sarrera banatuko ditugu etxeko partiduetan", esan digute.

Gaur bertan, plazako ekitaldian bazkide txartela egiteko aukera egongo da, eta hurrengo egunetan Aloña Mendin eta etxeko partiduetan.

Bazkide ez direnek EBA partiduetarako sarrera ordaindu beharko dute: bi euro.

> **DATUA**
> **30**
> EURO
> Hori ordaindu beharko dute helduen bazkide txartela egiten dutenek.

# Euskaltegiak zortziko taldeak osatzeko deialdia egin du, HABEk orduak ofizialtzat har ditzan

**M.B.** | OÑATI

2011-12 ikasturterako matrikula epea bukatu ondoren, beste deialdi bat egin dute Udal Euskaltegiko irakasleek, zortziko taldeak osatzeko helburuarekin. "Datuek erakusten digute taldeak txikiak direla, eta ez direla gutxieneko ikasle kopurura iristen. Zortziko taldeetan ematen ez diren orduak ez ditu ofizialtzat hartzen HABEk", esan digu euskaltegiko zuzendari Roberto Altunak.

Osatu behar dituzten taldeak honako hauek dira: lehenengo maila, A1, astelehenetik eguenera, 09:30etik 11:30era (bi ikasle); lehenengo maila, A2, astelehenetik eguenera 18:15etik 20:15era (bi ikasle); bigarren maila, B2, 09:00etatik 11:00etara, astelehen, martitzen, eguazten eta egubakoitzetan (bi ikasle); bigarren maila, B2, 18:00etatik 20:00etara, astelehen, eguazten eta eguenetan (bi ikasle); eta laugarren maila, C2, 17:30etik 20:00etara, martitzen eta eguenetan (ikasle bakarra).

Taldeotan parte hartu gura dutenek lehenbailehen eman behar dute izena Bidebarrietako kaleko euskaltegian: bulegoan, eskola orduetan edo 943 78 24 96 telefonoan.

### "Salbuespen egoeran"

Udal Euskaltegiak orain hasi duen ikasturtea eta beste bi izango ditu bizi duen egoerari buelta emateko. "Salbuespen egoeran gaude. Epe horretan konpondu beharko dugu arazoa. Egun HABEk hiru irakasleon soldata ordaintzen du, baina eurek aintzat hartzen dituzten ordu ofizialak kontutan hartuta, irakasle bakarra beharko genukeela esan digute. Hori horrela, soldata bakarra ordainduko luke", esan digu Altunak.

Talde ofizialak sortzeko arazoari irtenbidea ematen ez badiote, Udalak hartu beharko du azken erabakia: HABEk bere gain hartzen ez dituen bi irakasleen soldatak Udalak ordaindu edo euskaltegiak ematen duen zerbitzuaren gaineko azken erabakia hartu.

# Musika eskolako haize-taldearen kontzertua

## Otamendi tabernaren aurreko plazatxoan egingo dute gaur, 19:00etan

**M.B.** | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako haize-taldeak kontzertu berezia egingo du gaur, 19:00etatik 20:00etara, Otamendi tabernako plazatxoan. Corpus bezperan egindako kontzertuaren errepikapena izango da. "Kantuak berberak dira, baina errepikatzea erabaki dugu, Otamendi tabernako ugazabak hala eskatuta. Corpus bezperakoa asko gustatu zitzaion", esan digute musika eskolako arduradunek. Eguraldi txarra egingo balu, domekan, hilaren 16an, egingo lukete, 13:00etan.

### Coldplay eta Lady Gaga

Kontzertua hasiko dute Scott Joplin konpositorearen *Peacherine rag* eta *The easy winner rag* piezen bertsioak eginda. Ondoren, estiloa aldatuta, Coldplayren *Viva la vida* joko dute. *Jurassic Park* filmaren soinubandari lekua egingo diote, eta baita Tom Jones abeslariaren musikari ere. Bukatzeko, Lady Gagaren *Bad Romance* joko dute. Eta "sorpresaren bat" egongo dela esan digute.

### 14 kide

Haize-taldea 14 ikasle-irakaslek osatzen dute: Beñat Markinez, Xabi Urbina, Olatz Kortabarria, Joseba Jorda, Lorea Gomez eta Bixen Ibarrondo klarinete-joleek; Markel Bellido, Danel Iñurritegi, Ander Biain, Iñigo Barinagarrementeria, Benjamin Maiztegi eta Santi Mendiola saxofoi-joleek; Jone Biain, Itsaso Markinez eta Izaskun Barreña flauta-joleek; Imanol Mugartza tronboi-joleak; eta Araceli Guridi piano-joleak.



Haize taldeko kideak, Corpusetan Portu kalean egindako saioan. | GOIENA

## Herriko futbol txapelketako lehen jardunaldia aste bukaeran jokatuko dute; 17 taldek eman dute izena

Beteranoen 2011-12 denboraldia aste bukaeran hasiko dute. 17 taldek eman dute izena eta bi multzotan banatu dituzte. A multzoak bihar hasiko du txapelketa, honako partiduekin: Txarrixak-Nandrolona, Dollygans-Etxaixat, Lozorromo-Albok eta Paketinaikos-Kalañatasaray. Iazko txapeldun The Gibel Boys taldeak egingo ditu arduradun lanak.

## Sierra Maestra elkarteak kultura latindarraren ezaugarriak erakutsiko ditu Herriko Plazan

Hilaren 12a Arrazen Eguna da Latinoamerikako herrialdeetan, Amerikako eta Europako kulturen arteko topaketaren eguna ospatzen dute. Hori horrela, kubatarrak batzen dituen Sierra Maestra elkarteak ospakizun berezia egingo du bihar. Umeendako pailazoak, hainbat herrialdetako dantzen ikuskizuna, triki-poteoa, umeendako jolasak eta Jabier Idigoras DJaren musika izango dira bihar, 10:00etan hasita.

## Malo taldearen rock-and-roll agresiboa protagonista Anton tabernan gaur, 20:15ean

Malo taldeak kontzertua egingo du gaur, 20:15ean, Anton tabernan. Rock-and-roll agresiboa egiten duen taldea Ibanek eta *Eltxo*-k sortu zuten. 2005ean lehen diskoa kaleratu zuten, bi hilabeteko lanaren ondoren. Bost kantuko lana egin zuten. Bi urte geroago, 2007an, bigarrena argitaratu zuten, bost kanturekin: hiru euskaraz eta bi gaztelaniaz. Kantu horiek guztiak joko dituzte gaurko zuzenekoan.

# Tasa eta zerga asko KPI adina igoko dituzte

## Zaborrak %2,8ko igoera izango du eta ura oraindik zehazteko dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean udalbatzak eta ordenantza fiskalak onartu zituen aho batez. Tasa eta zerga gehienek KPIren igoera izango dute datorren urtean.

Udaleko kontu-hartzaileak ezin izan zuen zehaztu zenbatekoa izango den KPI. %3ren bueltan ibiliko dela uste du, baina urritik urrirako urte arteko indizea hartzen dute kontuan, eta azaroan jakingo da zenbatean geratzen den hori.

**Uraren tasa onartu barik**

Zaborraren igoera %2,8 izango da, Mankomunitateak hala zehaztu duelako. Uraren igoera, ostera, ez zuten onartu Ur Kontsortzioarekin bilera egin gura dutelako aurretik, eta hark proposatu duen igoera, dezenteko igoera, zergatik den argitu. Ibilgailuen tasei dagokienez, potentzia handiko automobilek tasa handiagoa duten legez, 500 zentimetro kubikotik gorako motorrek ere gehiago ordainduko dute datorren urtetik aurrera.

**Ospitalearen gaineko mozioa**

EAJko zinegotziek Debagoieneko ospitalearen gaineko mozioa aurkeztu zuten, eta aho batez onartu. Ospitalearendako hasieran egindako proiektuari heldu eta murrizketa barik aurrera egitea eskatu zioten Jaurlaritzari eta Osakidetzari, eta gainerako zinegotziak bat etorri ziren. Salatu zuten, gainera, ez dutela jaso inolako azalpen eta informaziorik eta komunikabideen bitartez dabiltzala kontuen berri izaten.



Herbehereetako eta Aretxabaletako ikasleek Bilbora egindako bisita. | KURTZEBARRI BHI

# Herbehereetako ikasleak datoz bihar Aretxabaletara

## Merlet College–en eta Kurtzebarri BHI institutuaren arteko seigarren elkartrukea izango da aurtengoa

M.A. | ARETXABALETA

Bihar, hilak 15, iritsiko dira Cuijk herriko (Herbehereak) Merlet College ikastetxeko ikasleak. Kurtzebarri institutuko DBHko laugarren mailakoek egingo diete harrera haiei eta urriaren 21a artean izango dira gurean.

**Euskal kultura ezagutarazi**

Kurtzebarri institutua Herbehereetatik datozen ikasleak hartzeko gertu dago. Orain dela sei urte hasi zuten bi institutuen arteko elkartruke proiektua eta helburu nagusiak honakoak dira: euskal kultura zabaltzea, ingelesa lantzea eta elkar hobeto ezagutzea. DBHko 4. mailakoek hartuko dituzte ikasleak etxean, baina institutuko hezkuntza komunitate osoa ibili da –gurasoak, irakasleak...– proiektuaren jarduerak gertatzen: euskal kultura ezagutzeko tailerrak (jokoak, kirolak, abestiak, ohiturak...), irteerak (Zumaia, Lastur, Donostia, Bilbo...), familiekin egonaldiak, bloga...

Martxoan, ostera, aretxabaletarrak joango dira Cuijk-era, bisita itzultzera. Kurtzebarri BHIko ikasleak Valentzia, Estonia, Letonia, Txekia eta Italiako neska-mutilekin elkartuko dira.

# Gastronomia eta folklore jaia eta patxaran lehiaketa domekan

M.A. | ARETXABALETA

XV. gastronomia eta folklore jaia izango da gurean domekan, hilak 16, Udalak antolatuta, Zaraia mendizale elkartearen laguntzarekin.

Urtero legez, hainbat erkidegotako ordezkariek jakiak ekarriko dituzte probatzeko, eta bertako kulturaren berri emango dute. Hona Herriko Plazan (11:00 -20:00) izango diren erkidegoak: Gaztela eta Leon, Extremadura, Galizia eta Errioxa. Euskal Autonomia Erkidegoa, ostera, Aratz elkarteko kideek ordezkatuko dute eta Iparraldeko abeltzainek jarritako postua ere izango da, ahatekiekin egindako produktuekin. Bada, iragarri dute 15 bat postu izango direla plazaren bueltan.

Ikuskizunei dagokienez, Errioxako Voces del Ebro jota taldeak abestu egingo du, eta Galizia etxeko eta Gaztela eta Leongo San Fernando taldeek dantzan egin.

**XVII. patxaran lehiaketa**

Etxeko patxaran lehiaketa ere egingo dute domekan. 11:00etatik 14:00etara jasoko dituzte patxaran -botilak plazan, eta arratsaldean epaimahaia elkartuko da (17:00). Horren ondoren, sariak banatuko dituzte.

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

ARETXABALETA Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako Berariazko Institutua
2011/2012 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILEEI ZUZENDUAK
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

| PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA | PRESTAKUNTZA MODULUAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | ORDUAK |
|---|---|---|---|
| TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | Txirbil harroketa bidezko mekanizaketan dauden makinen eta sistemen prestatzea eta programatzea | Fabrikazio prozesu osagarriak txirbil harroketa bidezko mekanizaketan | 70 |
| | Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa | Mekanizazio prozedurak txirbil harroketa bidez | 80 |
| | | CNC programaren egiaztapena eta doikuntza txirbil harroketa bidezko mekanizaketan | 70 |
| | | Txirbil harroketa bidez mekanizatutako produktuen ezaugarrien egiaztapena | 30 |
| | | (Zeharkakoa) Ingurugiro eta lan arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizaketan | 30 |
| TUTUEN INSTALAKUNTZEN FABRIKAZIOA ETA MUNTAIA (Profesionaltasun ziurtagiri osoa) | Tutuen trazaketa eta mekanizaketa | Tutuen fabrikazioaren planoen interpretazioa | 50 |
| | | Tutuen garapenaren trazaketa | 40 |
| | | Tutuen mozketa eta mekanizazioa | 60 |
| | Tutuen konformazioa eta antolaketa | Konformazioa eta kurbatzea tutuen fabrikazioan | 40 |
| | | Tutueriaren gauzatzea | 70 |
| | Tutuen muntaia | Tutuak muntatzearen antolaketa eta garapena | 60 |
| | | Tutuen mihiztadura eta euskarrien muntaia | 50 |
| | | Tutuen muntaiaren soldadura | 80 |
| MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA INSTITUZIOETAN (Gaitasunaren egiaztapenerako baliagarriak) | Instituzio arloko ekintzen antolakuntzan laguntza | Instituzioetan menpeko pertsonen harreran laguntza | 30 |
| | | Instituzioetan menpeko pertsonentzat ekintzen antolakuntzan laguntza | 70 |
| | Instituzioetan arreta soziosanitarioaren bitartekotza | | 70 |
| IBILGAILUEN KARROZERIKO ESTRUKTUREN MANTENTZE LANAK | Elementu finkoak | (Zeharkakoa)Elementu finkoen desmuntzea eta banatzea | 60 |

DOAN
KATALOGO MODULARRETIK KANPO

| | |
|---|---|
| Posizio horizontaleko TIG soldadura | 50 |
| Beste posizio batzuetako TIG soldadura | 50 |
| Gas fluoratuak maneiatzeko baimena | 40 |
| Karretila jasogailua gidatzeko baimena | 20 |
| Soldatzaileen Homologazioa | 60 |

DOAN
LANGABETUENTZAKO

| | |
|---|---|
| Geriatria laguntzarako zaintzak | 354 |
| Txirbil harroketa bidezko mekanizatua | 468 |
| Karrozeria | 400 |
| Giro naturaleko soldadura | 445 |

lanbidez heziketa formación profesional
ETXEBARRI AUZOA, ZG / 22Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

# Arizmendikoek Apotzaga eta Gellao arteko bidea egingo dute Ezkurtxorekin

Urteroko jaialdia dute bihar Arizmendiko 2 eta 10 urte arteko umeek; Gellao elizatea ezagutuko dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ezkurtxo jaia ospatuko dute bihar, zapatua, Arizmendi Ikastolako Jose Arana eta Almen guneetako neska-mutikoek eta haien gurasoek. Aurten, Gellao elizatea bisitatzeko asmoa dute, eta hara joateko 15:30erako egingo dute hitzordua, Jose Arana ikastola parean. Handik Apotzagara igoko dira autobusean eta handik aurrerako bidea oinez egingo dute. Apotzaga eta Gellao lotzen dituen hiru kilometro inguru duen bide zaharretik joango dira. Horixe da, hain justu ere, umeei erakutsi nahi dietena aurten: Gellaora Aretxabaletatik igotzeko ohitura badago ere, Eskoriatzatik ere joan daitekeela, Apotzagara joanda.

Paseoaren ondoren jaialdia iritsiko da. Ohikoa den moduan, ipuin kontalariak izango dira: batxilergoko ikasleek kontatuko dituzte istorioak. Betiko moduan, lehengo jokoak ere izango dituzte, hala nola kanikak, tiragoma, tortolosak, eski lasterketa, igelaren jokoa edo sokasaltoa. Umeak jolasean dabiltzan bitartean, Ezkurtxo gora eta behera ibiliko da Gellaon.

**Autobusa erabiltzeko deia**

Amaitu aurretik, jaialdian parte hartzen dutenendako txokolate beroa gertatuko dute Gellaon. Arizmendi Ikastolatik jakinarazi dute 100 lagun inguru espero dituztela. Horren harira, gurasoei eskatu diete ikastolak jarritako autobusak erabiltzeko eta autoetan ez joateko. Gogorarazi dute Gellaon ez dagoela aparkatzeko toki handirik.



Joan den urtean Arlaban inguruan ibili ziren perretxikoak batzen; irudian, hamarretakoa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

# Luis Ezeizakoek bertan behera utzi dute perretxikoen sailkapena eta erakusketa

Dena dela, bihar goizean mendi irteera egingo dute umeek eta gurasoek

M.B. | ESKORIATZA

Azkenaldian dugun eguraldi eguzkitsua eta beroa dela-eta, aldaketak egin behar izan dituzte Luis Ezeizakoek. Urri erdialdean perretxikoekin lotutako hainbat ekimen antolatzen dituzte urtero: zapatu goiz batean perretxikoak batzera joaten dira eta horren ondoren, Durangoko Errotari mikologia taldekoen laguntzarekin, batutakoaren sailkapena eta erakusketa egiten dute.

**Sailkapena**

Aurten ez da horrela izango. Guraso elkarteko presidente Nestor Aranak asteon bertan jakinarazi digu oso perretxiko gutxi dagoela, eta, hori dela-eta, hasierako asmoa aldatzea erabaki dutela. Hain justu ere, zapatu arratsaldean egiten den sailkapena eta domeka goizeko erakusketa bertan behera utzi dute. Honakoa esan digu: "Mendian izan naiz egunotan, eta, hainbat adituren kin egon ostean, esandako bi ekimenak ez egitea erabaki dugu".

Dena dela, mendi irteera egin egingo dute: biharko, zapatua, egin dute hitzordua. 09:00etan plazan elkartuko dira perretxikoak batzera joateko. Aranak jakinarazi digu hainbat talde egingo dituztela, zenbait menditara joateko. Besteak beste, Leintz Gatzaga aldera joateko asmoa dutela azaldu du.

# Martxan da 'Eskoriatzako txokoak' lehiaketa

M.B. | ESKORIATZA

Udalak *Eskoriatzako txokoak* izeneko argazki lehiaketa antolatu du aurten lehen aldiz. Argazkizaleek urriaren 31ra arte dute irudiak aurkezteko; kultura etxetik jakinarazi dutenez, argazki bakoitza posta elektroniko bakarrean bidali beharko dute *kultura@eskoriatza.net* helbide elektronikora.

Udalerriko bost postal argitaratu gura ditu Udalak, herriko hainbat dendatan salgai jartzeko, eta irudiak aukeratzeko argazki lehiaketa antolatu du. Gura duten argazkizale ez profesional guztiek parte hartu ahal izango dute eta bakoitzak, gehienez ere, hamar argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Irudiarekin batera honako datuak jarri behar dira postan: izen-abizenak, nortasun agiri zenbakia, helbidea, herria, posta-kodea, lurraldea eta telefono zenbakia. Aldi berean, argazki bakoitzak izen edo titulua izan beharko du.

**Eskoriatzarekin lotutakoa**

Gaia *Eskoriatza eta bertako elizateak* izango da; hain justu, udalerriarekin lotutako edozein irudik balio du. Zuri-beltzean edo koloreetan izan daitezke horiek. Horren harira, Udaletik ohartarazi dute argazkiak ukitu egin ahal izango direla, baina kontuan izan behar dela helburua dela horiekin postalak egitea.

Argazkiak *www.eskoriatza.net* webgunean argitaratuko dira, jendeak gustuko dituenak bozka ditzan, eta bozketan parte hartzen duten lagun guztien artean 50 euroko saria zozketatuko da.

**50 euro irabazleendako**

Horretaz gainera, 50 euroko sari bana ere banatuko da boto gehien jasotzen dituzten bost irudiendako. Udaletik jakinarazi dute posta elektroniko bidez bozkatzeko epea azaroaren 1ean hasiko dela eta 20an amaitu.

# Asturiasera joateko aukera dute erretiratuek

M.B. | ESKORIATZA

Olazar erretiratuen elkarteak irteera berria antolatu du: oraingoan, Asturiasera joango dira urriaren 24tik 29ra bitartean. Izenematea zabalik dihardu; martitzenean apuntatu ahal izango dira, 11:00etatik 12:30era. Atzora arte 39 lagunek zuten izena emanda.

Sei eguneko egonaldian askotariko txangoak egingo dituzte, hala nola Cabo de Peñas, Luanco eta Candas arrantzale-herriak bisitatzeko egun erdi izango dute, eta bestе horrenbeste Asturiasko alde historikoa ezagutzeko: Cangas de Onis eta Covadongara joango dira urriaren 26an.

**Hiria eta baserria**

Horretaz gainera, Oviedo eta Gijon ikusten egun osoa emango dute; hilaren 25ean egingo dute txango. Bestalde, baserri giroa ere bertatik bertara ezagutuko dute urriaren 28an, Cangas de Narcea, Pola de Allande eta Salasera joanda.

Olazarretik jakinarazi dute gela bikoitza nahi dutenendako prezioa 200 euro dela; eta bakarkako gela eskatzen dutenendako, 300 euro.

# Elikagaien gaineko hainbat gomendio

Elikagaien segurtasunaz jardun zuten martitzenean kultura etxean egindako tailerrean. Begoña Olabarrietak hainbat gomendio eman zizkien han batu ziren erretiratuei; esate baterako, sasoiko baserriko produktuak erabiltzeko gomendatu zien.



MIRIAN BITERI

## OHARRAK

**KIROL HITZORDUA**

Lehia bakarra dago asteburuan kiroldegian: areto-futboleko lehen erregionaleko Eskoriatzak Gasteizko Sorginak taldea hartuko du bihar, 16:00etan.

**HERRI BATZARRA**

Gaur, egubakoitza, herri batzar informatiboa egingo dute herriko kultura etxean, 19:00etan. Bake prozesuaz eta hauteskundeez egingo dute berba.

**ZABOR ETA UR TASA**

Dagoeneko jendaurrean dago aurtengo hirugarren hiruhilabetekoari dagokion estolderia eta ur hornikuntza tasen eta bigarren sei-hilabeteari dagokion etxez etxeko zabor bilketa tasaren errolda. Bada, borondatez ordaintzeko epea zabalik dago: abenduaren 10a baino lehen ordaindu beharko da ohiko banketxe edo aurrezki kutxen bidez.



Iazko topaketa eguna, Aiherran. | PATXI OLABARRIA

# Aiherra-Antzuola eguneko ekintzetarako zabalik dago izen-ematea

Urriaren 23an egingo da topaketa; Arrikrutzeko kobetara bisita, bazkaria eta jolasak egingo dira

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Ari da poliki-poliki gerturatzen Aiherra eta Antzuolako herritarren arteko topaketa eguna; urriaren 23an, domeka, egingo da aurten, Antzuolan. Bi herrien arteko topaketaren 27. aldia izango da aurtengoa.

Egun osorako ekintzak antolatu dituzte. Goizeko 10:30ean Oñatiko Arrikrutzeko kobak ikustera bisita antolatu dute. Bisita honetan parte hartzeko izena eman behar da eta urriaren 17a, astelehena, izango da azken eguna. *www.antzuola.com* webgunean edo udaletxean eman daiteke izena.

14:00etan izango da bazkaria. Menua hau izango da: babarrunak, odoloste, txorizo eta saiheskiarekin; arroz-esnea; kafea eta kopa. Nagusiek 10 euro ordaindu beharko dute bazkaria; umeek, berriz, 7 euro. Txartelak udaletxean eta liburutegian daude salgai.

Bazkalostean jokoak eta jolasak egingo dira.

**Aihertarren bisita**

Egun handiaren aurretik, baina, Aiherrako eta inguruko beste hiru herritako erretiratuak izan dira berriki Antzuolan. Tartean zen bi herrien arteko harremanaren sortzaile izan zen Andre Martinon ere. Martinonen arabera, euskaldunok elkar ezagutzeko topaketak dira hauek: "Euskaldunok ez genuen ezagutzen elkar eta beharrezkoa dugu ezagutzea. Beti kantatzen dugu zazpiak bat, baina fundamenturik egin gabe. Lehenik ezagutu egin behar dugu elkar".

Aspaldiko lagunak dira Andre Martinon eta Inma Beristain, Antzuolako alkatea eta harremana hasi zutenetakoa. Gazteak ere topaketan inplikatzea da Beristainen nahia: "Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta gure artean badugu harremana. Baina nahi dugu jende ezberdinak, gazteek, parte hartzea topaketan. Bagabiltza bati eta besteari abisatzen".

**Gazteen jarraipena**

Iaz bukatu zituzten senidetzearen 25. urteurreneko ospakizunak eta orduan nabarmendu zuten gauzetako bat izan zen gazteek hartu behar zutela harremanaren erreleboa.

Iparraldeko eta hegoaldeko ordezkariek herri bien arteko harremana modu naturalean sortu eta mantendu dute. Senidetzearen 20. urteurrenarekin batera ofizial egin zen harremana eta harrezkero bi herrietako udalek diruz laguntzen dituzte topaketak.

Iparraldeko eta hegoaldeko herritarrak elkar ezagutzeko aukera, beraz, urriaren 23an.

## 40 kilo inguruko kalabaza Gure Txokon

Gure Txoko baserriko Jose Antonio Zubikarai eta Antonia Egañaren ortuan 40 kilo inguruko kalabaza hartu dute. Ez da, gainera, bakarra. Antoniak kontatu digunez, mimo handiz zaintzen ditu ortuko barazki guztiak: satsa bota, ureztatu... Esan digunez, kalabazak ur asko behar izaten du eta hori ondo egitea da kontua.



USOA AGIRRE

### Bergarako Mizpirualde egoitzara bisita antolatu dute biharko; merienda eta dantzaldia egongo dira

Aurten ere antzuolar batzuek Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzara bisita antolatu dute. Bihar, zapatua, egingo da. Bertan egingo den meriendaz gain, Antzuolako abesbatzakoek ere abestuko dute eta ondoren dantzaldia izango da. Parte hartzeko jarri harremanetan Udal gizarte langilearekin edo joan zuzenean Mizpirualdera zapatu arratsaldean 16:30ean.

### Toloño mendira, Errioxara, irteera antolatu dute Arrola mendi elkartekoek urriaren 30erako

Ribas de Tereso portutik abiatuko dira; handik Toloñora igo eta Bastidara jaitsi. 8:00etan Torresoroa parean elkartuko dira. Izen -ematea urriaren 19rako egin beharko da egun horretan bertan Arrolako egoitzan 19:15etik 20:00etara, 635 20 58 41 telefonora deituta (Iker) edo zuzendaritzako edozeini deituta. 20 euro ordaindu beharko dira (10 euro ikasle eta langabetuek). Bazkide ez direnek 6 euroko gehigarria ordaindu beharko dute.

### Erretiratuen Elkarteak Kultura Astea antolatu du; izena eman beharra dago bi ekintzatarako

Urriaren 25etik 27ra bitartean egingo dute Kultura Astea. Urriaren 25ean Virginia Imazek antzezlana eskainiko du; 26an entzumenaren gaineko hitzaldia egongo da, eta ondoren merienda eta kina; 27an Iruñera irteera egingo da. Meriendan eta irteeran parte hartzeko izena eman behar da urriaren 17an eta 18an, 16:00etatik 18:00etara elkartean bertan. Iruñeko irteerarako 30 euro ordaindu beharko dira eta 60 lagunendako dago lekua.



Kanpandorrea, lehen. | USOA AGIRRE



Kanpandorrea, orain. | USOA AGIRRE

# Uzarragako eliza husten ari dira pixkanaka

Asteon kanpaiak kendu dituzte; handienak Bergarako San Pedro elizara eraman dituzte

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Uzarragako eraikina erortzeko arriskua dela-eta hesitu egin zuten uztailean Gipuzkoako elizbarrutiaren aginduz. Orain, barruko ondasunak bertatik ateratzen ari dira.

Duela aste batzuk Santa Agedako ermitara eraman zituzten jarlekuak, eta gelditzen diren beste zortzi bat banku kaleko elizara eramango dituzte. Bozgorailuak San Martzial ermitara eraman zituzten.

**Kanpaiak, Bergarara**

Asteon kanpandorretik kanpaiak jaisten aritu dira. Bi kanpai handienak Bergarako San Pedro elizara eraman dituzte eta txikiak kaleko elizara. Erretaula kentzeko dago oraindik eta hori ere kalera eramango dute. Erlojua ere jaitsi dute, eta garbitu ostean ikusiko dute zer egin.

Behin dena hustutakoan guztiz itxiko dute, inor ez dadin sartu.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Erretiratuendako egun bereziak aurten ere ez du hutsik egingo. | ARAMAIOKO UDALA

# Herriko erretiratuendako jaia egingo da hilaren 29an

Azoka, meza nagusia, dantza saioa eta bazkaria egongo dira, besteak beste

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Badator herriko erretiratuak omentzeko egun handia. Aurten urriaren 29an ospatuko dute, eta, urtero moduan, egitarau zabala antolatu du Udalak, Arabako Aldundiaren, Euskadiko Kutxaren eta Vital Kutxaren laguntzarekin. Eta noski, ezin aipatu gabe utzi egunean bertan protagonista izango diren eta egun berezia posible egingo duten talde eta elkarteak: Lagun Artea dantza taldea, Trikikalejira trikiti eskola, Papargorri elkartea, Bizente Goikoetxea abesbatza eta herriko txistulariak. Ibarra auzoan izango dira ekitaldi guztiak.

### Bazkaria kiroldegian

10:30ean herriko trikilari eta txistulariekin hasiko da ospakizun eguna. Gero, 12:00etan, urtean zehar hildako erretiratuen omenezko meza nagusia egingo dute San Martin parrokian. Mezan parte hartuko dute umeen Papargorri eskolaniak eta Bizente Goikoetxea abesbatzak.

13:00etan euskal dantzen saioa egongo da, Lagun Artea dantza taldearen eskutik. Egitarua amaitzeko, 14:30ean bazkaria egingo dute kiroldegian. Bertan parte hartzen dutenen artean hainbat opari zozketatuko dira, eta, urtero moduan, sari potoloa bi lagunendako Benidormerako bidaia izango da.

### Baserritarren azoka

Goiz osoan zehar Ibarrako elkarteetan erretiratu guztiendako salda eta ogitarteko txikiak egongo dira. Bestalde, erretiratuen jaian baserritarren azoka izaten da ekitaldi aipagarriena. Aurten herriko 17 baserritar eta artisauk hartuko dute parte. Itur Zuri emakume elkartearen eskulanak, bertako baserritarren barazkiak eta gazta, San Martin eskolako LHko seigarren mailako ikasleen pastelak eta herriko erlezainek ekarritako produktuak ikusi eta erosteko aukera egongo da. Nardeaga kalean egongo da kokatuta azoka. Abereak ere egongo dira eta baita kanpoko baserritar eta artisauak ere. Antolatzaileek jakinarazi dute aurten hainbat eskaera jaso dituztela, baina oraindik ez dute erabaki parte hartuko duten edo ez; datorren astean erabakiko dute.

Azkenik, domekan ere egongo da zertaz gozatu. Izan ere, artzain-txakur txapelketa egongo da goizean zehar.

# Aurrera doa AOBT, beste talde bat sortzeko asmoz

36ko gerraren gaineko erakusketa bat egiteko taldea sortu gura dute, Gabonei begira

**J.B.** | ARAMAIO

Joan den domekan, Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak (AOBT) bilera berezia egin zuen. Taldearen etorkizuna finkatzeko bilera izan zen, taldearen zuzendaritzan diharduten lau aramaioarrak aspaldian elkartu ez zirenez, lanean segitu edo ez erabakitzeko.

Bada, bertan erabaki zutenez, AOBT aurrera doa. Auzolanean konpondu eta txukundu beharrekoez gain, epe motzera beste helburu bat jarri dute. Gabonei begira, hain zuzen: 36ko gerraren gaineko erakusketa antolatu guran dabiltza.

### Aramaion informazio asko

Murugaingo indusketen barruan, 1936ko gerrako trintxerak identifikatu ostean, Intxorta 1937 kultura elkartekoek jakinarazi diete AOBTkoei informazio asko dutela Aramaion gerrak izan zuen eraginaren gainean.

Hala, AOBTren asmoa da Intxorta 1937 elkartekoen informazioa aztertu eta gero lubakiak bilatzen izan ziren herritarrekin egotea, proiektua azaltzeko. Izan ere, erakusketa ahalik eta osatuena egin gura dute. Horren ostean, deialdi irekia egingo dute. Beste talde bat sortu gura dute, propio, AOBTrendako "lan handia" delako.

### AOBTk, ateak zabalik

Jon Errasti AOBTko kideak dio ateak zabalik daudela edonorendako: "Ez gaude ateak inori ixteko moduan. Jende gutxi gabiltza eta jende berria eskertuko genuke. Baldintza bakarra da lanerako gertu egotea".

Bestalde, datorren udari begira Barajuen auzoko bi harraska berreskuratzeko asmoa dute. Aurretik, baina, jabearekin egon behar dute.

**ESANAK**

**"Lanerako gertu dagoen jende berria behar dugu"**

**JON ERRASTI** | AOBT-KO KIDEA



Murugaingo trintxeretan aritu zirenekin egon gura dute AOBTkoek. | AOBT

## Ustez Asiatik datozen erleak gurera ere heldu dira

Ondoko argazkiak Aramaioko Azkoaga auzoko gereziondo baten ateratakoak dira. Irudiaren egileek ez dakite oraindik erleak asiarrak diren edo ez, baina hemengoak baino "askoz handiagoak" direla diote. Ustezko erle inbaditzaileak eguaztenean harrapatu zituzten. Orain, adituei eman behar diete aurkikuntzaren berri.





ALBERTO ETXANIZ

## Ur kontsumoa neurtzeko eskatu du Udalak Suña, Untzilla, Zabola, Azkoaga, Barajuen eta Induspen

Udalak jakinarazi duenez, Untzilla, Suña, Zabola, Azkoaga, Barajuen eta Induspe auzoak hornitzen dituen araztegian ur gutxi jasotzen ari dira. Hala, auzotarrei eskatu diete ur kontsumo zentzuduna egiteko. Besteak beste, ura etxeko kontsumorako bakarrik erabiltzeko eskatzen dute.

Ur kontsumoa neurtu ezean, Udalak bestelako neurriak hartu beharko dituela eta auzo horietako bizilagunei ura murriztu beharko diela azaldu du, ohar baten bidez.

## Marmelada egiten duen emakumez osatutako Errezilgo kooperatibara irteera, ABBren eskutik

Azaroaren 5erako irteera berezia deitu dute Udalak eta Aramaio Baserri Barri elkarteak. Emakumez osatutako Errezilgo kooperatiba batera irteera egingo dute, bertako frutekin egiten duten marmelada egiteko prozesua bertatik bertara jarraitzeko. Helburua da euren esperientzia ezagutu ostean Aramaion halakorik egin daitekeen baloratzea. Deialdi irekia da eta Udalak eta ABBk herritarrak animatu gura dituzte irteeran parte hartzera. Azaroaren 5ean irtengo dira, beraz: 09:00etan elkartuko dira, pilotalekuan.

ELGETA

NIRE USTEZ



IGOR ARIZMENDIARRIETA

## Euskara kalean behera

Betidanik izan da eta da Elgeta herri euskalduna. Entzuna daukat Elgetan euskaldunen kopurua %85 dela aspaldidanik. Baina azken urteotan badago kezkatzen nauen zerbait; konturatzen hasia naiz Elgetako gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dutela euskara kalean –gazteleraren mesederako.

Nahikoa da kaletik pasa eta arreta pixka bat jartzea horretaz ohartzeko. Gure garaian ere aritzen ginen gazteleraz, baina ez zegoen hain errotua ohitura hori, bolada kontuak ziren.

Inpresio hau ez da bakarrik Elgetara mugatzen, alboko herrietara joaten naizenean ere nekez ikusten ditut gazteak euskara hutsean. Nire lanean ere sumatu dut, ikasturteak pasa ahala, ikasleak gero eta gehiago zuzentzen zaizkidala gazteleraz. Gauza bera euskaraz adierazteko esaten diezunean; harritu aurpegia jartzen dute, gainera.

Inguruak eta batez ere komunikabide globalizatuek berebiziko eragina dute gazteengan. Bertatik hartzen dituzte ereduak eta eragina izugarria da, batez ere adin hauetan.

Baina horien guztien gainetik gurasoak edo guraso izango garenak gaude, gure eskuetan dago neurri handi batean umeen euskararen erabilera kalean, etxean eta eskoletan. Egin dezagun, behintzat, ahalegintxo bat denon artean euskararen presentzia areagotzeko.

**"Nekez ikusten ditut gazteak euskara hutsean"**



Pascual, 4 urteko gelako umeekin lanean. | ELGETAKO HERRI ESKOLA

**Juan Carlos Pascual** | Elgetako Herri Eskolako aholkularia

# "Gela guztietan sartu eta behaketak egiten ditut zailtasunak detektatzeko"

Aurten lehenengo aldiz aholkulariaren figura dugu Elgetako eskolan; Juan Carlos Pascual du izena

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Oñatiarra da, eta momentuz berria Elgetako guraso askorendako. Eskolako aholkularia da, eta bere zereginen berri eman digu.

**Ze funtzio betetzen duzu?**

Aholkulariaren zeregina da heziketa premia bereziei erantzuna ematea, kanpoko erakundeekin harremanak mantentzea eta inguruan dauden errekurtso guztiak —laguntzaileak, fisioterapeutak, logopedak, terapeuta okupazionalak... — koordinatzea. Baita ere tutoreei orientabideak ematea. Heziketa bereziko mapako bost ikasle ditugu Elgetan. Nire lehentasuna bada, baina eskola batean badaude heziketa bereziko premiarik izan gabe zailtasunak dituztenak umeak. Horiek ere badira nire zeregina. Gainera, aurten, ikaskuntza kooperatiboa ere landuko dugu eskolan.

**Nola egiten duzu lan?**

Nire lana, gehienbat, Haur Hezkuntzan eta Lehen Zikloan zentratzen da ze irakurketa/idazketa prozesua menperatu artean zailtasun berezi batzuk detektatzen dira. Gela guztietan sartzen naiz eta behaketak egiten ditut. Ikusten badut ikasleren bat atzeratuta gelditzen ari dela erantzun bat ematen saiatzen gara. Arazoaren arabera metodologia aldaketa izan daiteke edo errefortzu saioak... Normalean tutorea da zailtasunak detektatzen lehena.

**Zer esango zenieke gurasoei?**

Zalantza edo kezka baten aurrean beste edozein tokira joan aurretik eskolan kontsulta egiteko. Esfinterren kontrolarekin kezkatuta badaude, umea etxean ezohiko portaerekin hasten bada... Beti ere tutorearen bitartez, izan ere, tutorearen eta gurasoaren arteko komunikazioak erabatekoa izan behar du. Hortaz, edozein zalantza argitzeko gaude hemen eta eskolatik bertatik erantzun bat ematea posible ez bada beti dugu gaia deribatzeko aukera.

**Zure etorrerak bestelako nobedadeak ere ekarri omen ditu. Zer da euskararen trena?**

Elgetan ere jolastoki orduan gazteleraz egiteko joera handia dagoela antzeman dugu. Hala, eskolako umeek kontratu bat sinatu dute non euskaraz hitzegiteko konpromisoa hartu duten. Lorpenen arabera kolore ezberdinetako gometxak jasotzen dituzte. Ostiralean gometxa gehienak berdeak badira ordu laurden luzatzen diegu jolastoki ordua. Saritxo hori lortzen dute. Hasi berriak gara, baina haurrak oso inplikatuta omen daude. Ikusiko dugu zer ematen duen.

**"Irakurketa-idazketa prozesuan zailtasun bereziak ager daitezke"**

## Gaurko 'Trainspotting' ikuskizuna bertan behera geratu da

Artistak horrela eskatuta bertan behera geratzen da Juanlu Escuderok gaurko, barikua, Espaloia kafe antzokian iragarrita zuen *Trainspotting* ikuskizuna. Kafe antzokian egingo den hurrengo emanaldia musika emanaldia izango da; Zea Mays eta Split 77 taldeena, hain zuzen ere. Urriaren 21ean, barikua, izango dira Elgetan 22:30ean hasita.

## Astelehenean, hilak 17, KZgunean izango da dinamizatzailea

Goizez, 09:00etatik 13:00etara egongo da kultura etxeko KZgunean Eli Modrego dinamizatzaile berria. Ohikoa den moduan hainbat ikastaro egiteko aukera egongo da; sare sozialak, skype, google tresnak, gmail, flickr, wifi, paypal, ebay, drauw, audicity, delicious... KZguneko bi ordenagailuak erabilgarri egongo dira.

## Plaza libreak ezinduak dituzten familiendako ikastaroan

Zabalik jarraitzen du izena emateko epeak Elgetako udal gizarte-ongizate sailetik antolatu duten ikastarorako. Azaroan bina orduko bost saio egingo dituzte. Doluaren prozesua, emozio egoerei aurre hartzea, kontrol mentala eta erlaxazioa izango dituzte hizpide. Interesatuek udaletxera jo behar dute.

## Zilarrezko domina Edurne Alberdi eta Petra Morales odol-emaile elgetarrei

L.Z. | ELGETA

Etzi, domeka, elkartuko dira Elgetan Debagoieneko eta Debabarreneko odol-emaileak. Meza entzun ostean, 13:00etan batuko dira Espaloian sari banaketa eta bazkaria egiteko. Aurten dominak edo intsigniak jasoko dituztenen artean bi elgetar egongo dira: Edurne Alberdi eta Petra Morales, hain zuzen ere. 25 odol-ateratze egin dituzte dagoeneko eta zilarrezko domina bana jasoko dute.

**Hurrengo ateratzea azaroan**

Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an, egingo dute Elgetan hurrengo odol-ateratzea, udaletxean, 18:00etatik 20:00etara.

## VIII. PILOTA TXAPELKETA

**EGUAZTENEKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre / Asier Morales - Koldo Goenaga | 22-08 |
| Pello Larrea - Mikel Elkoro / Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre | 22-20 |
| Andoni Elortza - Odei Zenitagoia / Ibai Etxaniz - Jon Irazabal | 22-17 |
| Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Diego Cantabrana - Iker Irazabal | 22-21 |
| Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi / Iban Retolaza - Jabier Larrañaga | 22-08 |

**DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:30EAN**

Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Satur Ramos - Mikel Arkarazo
Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua
Garikoitz Arrazola - Mikel Ormaetxea / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga

LEINTZ GATZAGA

## Ikastetxeendako bisiten egitaraua gertu dauka Turismo Bulegoak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ikasturte berriarekin batera Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak ikastetxe eta taldeendako bisita gidatuen egitaraua gertatu du *Ezagutu Debagoiena* izenarekin. Gatzaga dago egitarauan, bertako parajeak, ibilbideak, historia kontuak eta zerbitzuak ezagutzeko aukerarekin.

**Natura eta kultura ondarea**

Lehen Hezkuntzako ikasleendako gertatutako bisiten artean honako ibilbidea proposatu dute: *Vasco-Navarro* trenbidea, Landatik Gatzagara (oinez egitekoa); gatzaren museoa; eta Gatzagako Erdi Aroko gunea. Hala, landaretza eta jarduera ekonomikoak ezagutuko dituzte ikasleek. Beste proposamen bat uraren erabilera ezagutzeko da: Hiruerreketara irteera; gatz museoa; eta Urkuluko ur araztegia. DBHko ikasleendako ere badago uraren ibilgua ezagutzeko irteera hori. Hain zuzen, astean bertan izan dute Arrasateko ikasle talde baten bisita Gatzagan.

Bestalde, ikasle ez diren taldeendako egin dituzten proposamenen artean *Uraren erabilerak* proposamena dago (Hiruerreketa); baita gatz museoa bisitatzeko aukera ere. Egurrezko elizak ezagutzeko ibilbide barruan Eskoriatzako hainbat elizarekin batera Gatzagakoak daude, tartean Zurtitzako San Martin.

**Debarroa proiektua**

Bestalde, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak ere antolatzen ditu ikasleen bisitak Debarroa proiektuaren barruan. Dagoeneko hamar bat taldek ditutze hitzorduak eginda Gatzagan; lehenengo taldeak azaroan etorriko dira eta gainerakoak, udaberri inguruan.

## Urrian da jarduera ekonomikoen zerga ordaintzeko epea

Urriaren 1etik azaroaren 10a bitartean izango da zabalik jarduera ekonomikoen gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea. Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak aurrez esandako helbidera bidaliko dituzte urrian zehar, eta ordainketa, gero, banku edo aurrezki kutxa bidez egin beharko dute.



Iazko lasterketako irteera unea; azkarrenak aurrean, baina izan ziren proba lasaitasunez hartu zutenak ere. | MONIKA BELASTEGI

ATLETISMOA

# Iaz Sergio Gartziak egindako marka jokoan, Tafyd krosean

- Gaur, egubakoitza, 20:00etan hasiko dute proba, Arrasaten
- Antolatzaileak 19:00etan hasiko dira izenak hartzen, Ferixalekuan

X. URTZELAI / T. MADINA | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako lagunek antolatuta Gaueko III. Tafyd krosa egingo dute gaur, 20:00etan hasita, Arrasaten. Hala, GOIENA papereko ale hau jasotzen duzuen asko garaiz ibiliko zarete izena eman eta lasterketan esku hartzeko; eta inor ausartzen bada, iaz Sergio gartziak ezarritako marka ontzeko.

Durangarrak irabazi zuen iazko krosa eta 18.35eko marka egin zuen sei kilometroko krosean –emakumetan Aitziber Urkiola izan zen onena; hala, erretratua ikustea baino ez dago konturatzeko Debagoieneko oilarrak izan zituela ondoan. Beldurtu barik, atzean lasterketa lasaiago egin zuten asko egon ziren, eta ordu horretan kalean zebiltzan herritar askoren txaloak jaso: "Hori du ona, kalean ordu horretan giro polita egoten dela, eta korrikalariek animo galantak jasotzen dituztela", adierazi digu probako antolatzaileetako batek, Olatz Manuelek. Gaur ez da bestela izango, eta iazko parte-hartze kopuruarekin konformatzen badira ere (74 atleta), urtero-urtero hasiz doan hitzordua da hau.

**"Babes polita jaso dugu"**

Proba hasi aurretik antolatzaileek Arrasateko merkatarien partetik jaso duten babesa azpimarratu dute: "Harrera oso ona izan dugu, eta dendari askok produktuak eman dizkigute sari banaketarako eta lasterketa ostean korrikalarien artean egingo dugun zozketarako".

## Otalora eta Garibai moztuta

Aurreko bi edizioetan lasterkariek espaloian egin dute korrika, baina gaurko lasterketarako Otalora eta Garibai etorbideetan zirkulazioa eten egingo dute krosa egin ahal izateko. Lasterkariek leku handiagoa izango dute horrela; proba amaitu eta berehala irekiko dituzte berriro ere.

## Antxintxika krosa aurkeztu dute

Azaroaren 5an egingo dute Soraluze eta Bergara arteko ibilbidea izango duen Antxintxika Krosaren VII. edizioa, Olatz Rementeria memoriala, eta aurten hainbat berrikuntza izango ditu.



Antolatzaileak Bergarako udaletxean, aurkezpen ekitaldian. | TXOMIN MADINA

Batetik, iaz kirol egokituko lasterkariak izan baziren Antxintxika krosean debuta egin zutenak aurten patinatzaileak izango dira krosean lehen aldiz (Arrasate–Oñati proban 98 patinatzaile izan ziren, zenbateko polita lehen ediziorako). Hori bai, patinatzaileen parte-hartzeak segurtasun neurriak gogortzea ekarriko du, baita ibilbidean aldaketa batzuk egita ere. Ibilbide aldaketek, baina, lasterketa herrian barneratzea ere badute helburu. Hala, aurten lasterketa San Martin plazan amaituko dute, eta ez Ibargarain. Gainera, lasterkariek txipa eramango dute aurten, denboren kontrola egitea eta sailkapena erabakitzea errazteko helburuarekin.

Aldaketa garrantzitsuena, akaso, izen-ematean izango da; aurten Internet bidez bakarrik eman ahalko da izena, *www.kirolprobak.com* webgunean. izen-emate epea lasteketaren aurreko egunean, azaroaren 4an amaituko da, Lasterketaren beraren egunean, ez da aukerarik izango izena emateko. Parte-hartzaile kopurua mugatua izango da gainera: 100 patinatzaile gehienez, eta 700 lasterkari.

Ordaindu beharrekoari dagokionez, hainbat aukera daude. Txipa erosiz gero, 13 euro kostatzen da izen-ematea; txipa alokatu bakarrik egiten bada, bi euro gehiago. Eta Soraluzera joateko autobusa erabiliz gero –sei autobus jarriko dituzte– beste bi euro ordaindu beharko dira.

ESKUBALOIA

## Aurreikusi moduan hasi du liga Ford Mugarrik

X.U. | ARRASATE

Jokatutako lau partiduak irabazi egin ditu Ane Herrerok zuzentzen duen Ford Mugarri Arrasatek, eta, pronostiko guztiak beteaz, ligako oilar bilakatu da hasiera-hasieratik. Eguaztenean, nahiz eta lan kontuak zirela-eta jokalarien artean hainbat baja izan, Urdulizen kantxan lortu zuten laugarren garaipena, 20-28, eta zapatuan sailkapenaren erdian dagoen Gure Auzune taldearen bisita izango dute Musakolako kantxan (18:00).

Hala, liga hasiberri badago ere, Askartzak, Ford Mugarri Arrasatek eta El Pilarrek dagoeneko aurkeztu dute titulurako hautagaitza.

**Bergarak Basaurin**

Soraluce BKEk, berriz, Basaurin jokatuko du zapatu arratsaldean (17:00). Bergarakoei iaz mordoa kosta zitzaien lehen garaipena eskuratzea, eta aurten, Muniategiren mutilek dagoeneko lortu dituzte lehenengo puntuak. Asteburuko norgehiagoka garrantzitsua izango da, Basauri beheko postuak ekiditeko lehian ibiliko den taldea delako.

SASKIBALOIA

## Eskoriatzan egingo dute, domekan, nesken saskibaloi topaketa

Aurten ere Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloi sailak saskibaloi topaketa antolatu du domekarako. Bertan, 2000, 2001, 2002 eta 2003an jaiotako Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko neskak parte hartzera gonbidatuta daude. Topaketa Manolo Muñoz kiroldegian izango da (10:00). Antolatzaileek gurasoen presentzia ere eskatu dute; eta elkarteko kideek nesken gurasoen presentzia ere eskatu dute, bertan topaketen berri eta saskibaloi eskolaren berri emango dutelako.

## ZUZENKETA

Joan den astean, afizionatu mailan korritu zuten Born-Jay eta Ulma-Cegasa ziklismo taldeen gainean idatzi genuen. Baina ibarrak maila horretan izan duen ordezkaritza ez zen Ulma-Cegasarekin amaitu, 2004an Lizarralde-Aldekoa taldea izan zelako, eta 2005ean TKV-Aldekoa.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHEN MAILA**
Zaragoza-Reala
Domeka. 16:00. La Romareda.

**EMAKUMEZKOEN 2. MAILA**
Mondra-Eibar
Domeka. 12:00. Mojategi.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Zumaiako-Aretxabaleta
Zapatua. 18:15. Aita Mari.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Hondarribia-Bergara
Zapatua. 16:00. Ondartza.
Mondra-Oiartzun
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Roteta
Domeka. 16:30. Ibarra.
Berio-Aloña Mendi
Domeka. 15:45. Berio.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Antzuola-Aretxabaleta B
Zapatua.16:30. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA**
Urki-Mondra B
Zapatua.16:00. Unbe.
Ikasberri-Aretxabaleta C
Zapatua. 17:30. Garmendipe.

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA**
Aurrera-Mondra
Zapatua.17:00. Zaldupe.
Amaikak Bat-Ordizia
Zapatua. 16:30. Errotazar.
Aloña Mendi-Lagun Onak
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Elgoibar
Domeka. 17:30. Ipintza.

**GAZTEAK**
Aretxabaleta B-Bergara B
Domeka.12:00. Azkoagain.
Arizmendi-Urki
Zapatua. 12:00. Almen.

**OHOREZKO KADETEEN MAILA**
Beasain-Bergara
Zapatua.12:00. Beasain.
Zarautz-Aretxabaleta UDA
Domeka. 12:30. Asti Txiki.
Anaitasuna-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Azkoitia.

**KADETEEN LEHEN MAILA**
Arrasate-Urki
Zapatua.10:00. Mojategi.
Eibartarrak-Antzuola
Zapatua. 14:30. Unbe.
Aloña Mendi B-Elgoibar B
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Bergara B-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Bergara B-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Aretxabaleta B-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ibarra.

**EMAKUMEZKOAK**
Arizmendi-Lagun Onak
Zapatua.15:30. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Uxoa-Eskoriatza
Zapatua. 17:00. Laudio.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**
Aretxabaleta-Zarautz.
Gaur. 20:45. Almen.

**KADETE MUTILAK**
Anoetako Ikast.-Arizmendi Es.
Zapatua. 11:00. Anoeta.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri-Gure Auzune
Zapatua. 18:00. Musakola.
Indu. Basauri-Soraluce BKE
Zapatua. 17:00. Basauri.

**GIPUZKOAKO LEHEN TERRIT.**
Izarraitz Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO BIG. TERRITO.**
Usurbil-Arrasate
Zapatua. 19:00. Usurbil.

**GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK**
Bergara-Talleres Chapime A.
Domeka. 12:15. Labegaraieta.

**GAZTE MAILA, EMAKUME.**
Aloña Mendi-Bartolo jatetxea
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
Berezao Aloña-Ordizia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**KADETEAK, EMAKUMEZKO.**
Aloña Mendi B- Bera Bera
Domeka. 10:30. Zubikoa.
Aloña Mendi A-Consulting Alav.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-La Alcoholera
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**LEHEN SENIOR GIZONEZK.**
MU-Astigarraga
Gaur. 20:00. Musakola.
Internacional-Soraluce Berga.
Zapatua. 16:00. Donostia.

**BIGARREN SENIOR GIZONEZ.**
Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**HIRUGARREN SENIORRAK.**
MU B-Alde zaharra
Zapatua. 16:00. Musakola.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
BKL-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Beasain.

**GAZTEAK**
Cafes Aitona-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Donostia.
Easo Ekaitza-Soraluce Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.
GX Easo 94-MU B
Domeka. 11:00. Donostia.

**PILOTA**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Egubakoitza. 19:00ean hasita
Bergaran:
Josu Zezeaga-Andoni Rodriguez
Unai Zubizarreta-Andoni Rodrig.
Paul Valgañon-Imanol Retolaza
Egubakoitza. 19:00ean hasita
Aretxabaletan:
Aretxabaleta1-Beloki1
Aretxabaleta-Bergara3
Aretxabaleta-Hernani
Egubakoitza. 19:30ean hasita
Eskoriatzan:
Eskoriatza-Aurrera Saiaz
Egubakoitza. 20:30ean hasita
Arrasaten (Uarkape):
Arrasate1-Azkoitia3
Arrasate-Eple2
*Zapatuan partidu gehiago Uarkapen, 10:00etan hasita eta 17:00etan hasita.

**MENDI BIZIKLETA**
ARRASATEKO MARTXA
Zapatua. 10:00. Musakolan.
Izenematea 09:00etan hasita.

**ATLETISMOA**

**GAUEKO III. TAFYD KROSA**
Gaur. 20:00. Arrasaten.
Izenematea 19:00etan hasita.



Oiartzunen kontrako partiduko irudia (0-2). | JULIO CALLEJA

FUTBOLA

# Aretxabaleta izan ezik, gainontzeko taldeak "dinamika txarra" aldatzera

### Mondrak Oiartzun hartuko du Mojategin eta Aretxabaletak Roteta Ibarran

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

"Orain artekoa nire erantzukizuna izan da, eta hemendik aurrerakoa ere bai". Aloña Mendiko entrenatzaile Andoni Azkargortak astelehenean, *Harmailatik* saioan, garbi egin zuen berba. Bistakoa da Oñatiko taldeak ez duela amestutako hasiera izan –Mondrak eta Bergarak ere ez– jokatutako bost partiduetan puntu bakarra eskuratu dutelako, baina ondo landutako Anaitasuna moduko talde baten aurrean –laugarren daude sailkapenean– txantxikuarrek ez zuten partidu txarra egin; zuzendu daitekeen egoera da hori. Dena dela, Azkargortak onartu moduan, "Taldeak sendotasuna erakutsi arren liga hasierako dinamika hau aldatu egin behar dugu".

Oñatikoak liga indartsu hasi duten Berioren zelaian egin nahi dute dinamika aldaketa hori (domeka, 15:45), erronka gaitza izango denaren jakitun.

> **DATUA**
> **11**
> GOL
> Aloñak eta Bergarak gol kopuru bera jaso dute, 11; 12 gol jaso ditu Behobiak.

**Bergara ere, berdin**

Azkargortaren pentsaera antzerakoa izango du, seguruenik, Bergarako entrenatzaile Neka Galanek. Haren esanetan, "orain arteko partidurik onena", egin zuten joan den astean, etxean, Trintxerperen kontra, baina ez zen partidua irabazteko nahikoa izan, baloi geldiko jokoan jaso zuten-eta gola (0-1).

Dinamika txarra aldatzeko lehen pausoa izan zen, eta asteburuan etxafuegoak botatzeko ez dagoen Hondarribiaren zelaian eman nahi dute hurrengo pausoa (zapatua, 16:00).

**Mondrak eta UDAk etxean**

Mondra ez dago aurretik aipatu ditugunak baino askoz hobeto, baina Iban Rodriguezen mutilek dagoeneko lortu dute ligan lehenengo garaipena, Bergararen kontrako derbian. Bihar, zapatua, seigarren postuan dagoen Oiartzun izango da Mojategin (16:30). Oiartzuarrek dagoeneko hiru partidu irabazi dituzte, eta behera baino, gora begira daude.

Gora begira dagoena Aretxabaleta da, nahiz eta azken partiduetan ezusteko emaitzak jaso dituzten –berdegunean maila ona erakutsi dutelako. Juanan Cruzen mutilek zazpi puntu batu dituzte, eta azken jardunaldietako atzerapausoa zuzentzeko asmoaz hartuko dute Ibarra futbol zelaian Roteta (Domeka, 16:30).

MENDIKO BIZIKLETA

# Arrasateko martxa egingo dute zapatuan; Eskoriatzakoek gertu dute datorren astekoa

**X.U.** | ARRASATE

Bihar, zapatua, egingo dute Besaideren mendi hamabostaldiaren barruan Arrasateko bizikleta martxa. Antolatzaileak 09:00etan hasiko dira Musakolako kiroldegian izenak hartzen (federatuek 5 euro; gainontzekoek 10 euro). 10:00etan hasiko da martxa. Ibilbideak 32 kilometro inguru izango ditu, eta Udalan aukeran egongo da Enduro bonus izeneko tartea, bestea baino teknikoagoa.

**Hurrengoa Eskoriatzan**

Eskoriatzakoak badabiltza datorren domekan, hilak 23, egingo duten martxan lanean. Ibarreko zirkuituko azkena izango da.



Iazko martxa. | J. ARANTZABAL

EAJ PNV
Jakin eta egin
Saber hacer
Posta bidezko botoa
KONGRESU ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEAK
2011KO AZAROAREN 20a
Ohikoa denez, eta 2011ko azaroaren 20an ospatuko diren Hauteskunde Orokorrak direla eta, EAJ-PNVk interesatu guztiei jakinarazi nahi die, posta bidezko botoaren inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzeko, beraien esanetara gaudela.
GIPUZKU BURU BATZARRA
943 11 88 88
688 67 73 07
www.gipuzko.com

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA



2010eko ekainaren 25ean egin zuten ikuskizuna Muniben; Manex Alberdi izan zen protagonista. | GOIENA

## Munibeko magia, Aroztegira

### Ramon Arantzabalek margo erakusketa zabalduko du gaur Bergarako Aroztegi aretoan; gainera, katalogoak jarriko ditu salgai 5 eurotan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Gaur zabalduko dute Bergarako Aroztegi aretoan Ramon Arantzabalen margo erakusketa. Margolanak "ezagunak" izango dira askorendako; izan ere, orain dela urtebete pasa Munibe plazan erakutsitakoak dira.

*Gau magikoak Munibeko plazan* ikuskizunean erabili zituen lanak egongo dira Aroztegin ikusgai –2010eko ekainaren 25ean egin zuten ikuskizuna–. "Lasai eta soseguz" ikusteko aukera egongo da oraingoan, Arantzabalen berbetan. 19:00etan izango da irekiera, eta lanak ikusgai egongo dira hilaren 30era arte. Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan 12:00etatik 14:00etara.

**Hasierako asmoa**

*Gau magikoak* ikuskizuna egin zutenean asmoa zen margolanak Muniben uztea ikusgai egun pare batez. Baina hainbat arrazoi zela -eta ez zen posible izan lanak Munibeko etxe historikoan ikusgai uztea. Horregatik erabaki dute erakusketa Aroztegin egitea: patxada handiagoz ikusteko aukera izateko herritarrek.

Erakusketan ikusiko dira 16 edo 17 margolan eta horietatik hiru tamaina handikoak izango dira: koadro bat 3x3 metrokoa, beste bat 8x2 metrokoa eta hirugarrena (eguraldiaren arabera jarriko dutena) 6x2 metrokoa izango da. 16 margolan Aroztegi barruan egongo dira eta 17.a kanpoaldean jarriko dute, eguraldiaren arabera. Gainera, Arantzabalen asmoa da gau hartan Muniben bizi izandako giroa Aroztegira eramatea. Horretarako, hainbat modu erabiliko ditu: batetik, gau hartan grabatutako irudiak jarriko dituzte ikusgai pantaila batean; eta, bestetik, gau hartan jasotako argazki panoramiko bat jarriko dute. Hala, ikusleak aurora borealaren eta Jean Sibelius-en inguruan mugituko dira.

**Katalogoak salgai 5 eurotan**

Erakusketan bertan katalogo batzuk jarriko dituzte salgai. "5 eurotan jarriko ditugu salgai katalogoak. Katalogoan jasotzen dira Munibe plazan jasotako irudiak. Katalogoekin lortutako dirua erabiliko dugu hurrengo egingo dugun ikuskizuna laguntzeko", azaldu du Arantzabal margolariak. Asmoa da lortutako diruarekin aurrerago egingo dituen lanak finantzatzea.

**Koloretako margolanak**

Arantzabalen berbetan, egiten dituen margolanak "abstraktuak dira, eta oso koloretsuak eta adierazgarriak". Egileak nahiko luke bisitariak pintura abstraktuaz gozatzea eta Aroztegi aretotik irtetea "kolorez eta magiaz liluratuta".

Urtebete baino gehiago pasa da *performance*-a egin zutela, eta Arantzabalek dio uneoro gogoratzen duen momentua dela. "Minutu, ordu eta segundo guztietan buruan daukat ikuskizuna", azaldu du. Gogoratu du oso pozgarria izan zela ikuskizuna eta ehunka lagunek parte hartu zutela: "Niretako sorpresa izan zen: ze erantzun izan zuen eta nola irten zen". Gaineratu du hurrengo ikuskizuna prestatzen dabilela: "*Munibeko gauak* trilogiako lehenengoa izan da; aurrerago beste bat egingo dugu; datorren urtean, seguruenez".

Lehenengo aldia izango da Ramon Arantzabalek Aroztegin erakusketa jarriko duena.

Bergarako Aroztegi aretoan lan handia egiten dabiltza mailako erakusketak jartzeko. Ramon Arantzabal bera Beart elkarteko kidea da eta azaldu du Beartetik badabiltzala hori zaintzen. "Bai Beart eta baita Udala ere lanean dabiltza; denon artean egiten dugu lan Aroztegik maila bat manten dezan", azaldu du. *Performance*-an parte hartu zutenak gaur erakusketan egongo diren galdetuta, Arantzabalek esan du egongo direla baina ez dutela dantzarik egingo.

---

**RAMON ARANTZABAL** | MARGOLARIA

### "Muniben bizi izan zen giroa plasmatuko dugu bideo batekin"



R. Arantzabal. | GOIENA

Arrasatearra jaiotzez, Bergaran bizi da aspaldian Ramon Arantzabal. *Gau magikoak Munibeko plazan* izeneko *performance*-a uneoro buruan duela azaldu du.

**Gaur irekiko duzuen erakusketan sorpresa bat egongo da.**

Bai, Aroztegitik kanpo sorpresa bat egongo da, eguraldiak baldintzatuko duena.

***Gau magikoak Munibeko plazan* ikuskizunean erabilitako lanak izango dira erakusketakoak?**

Bai. Eta, gainera, ikusi ahal izango da bideo baten Muniben egin zen *performance*-a. Hain zuzen, pantaila bat eta bideoa bat jarriko dugu eta ikusgai egongo da emanaldia. San Juan bezperan sortu genuen giro hura Aroztegira eramango dugu. Baina modu ezberdinak egongo dira giro hura plasmatzeko. Argazki panoramiko bat ere jarriko dugu, hura zer izan zen erautsiko duena.

**Zer da zuretako erakusketa hau?**

Muniben egindakoa borobiltzeko modu bat da. *Performance*-aren inguruan esan nuen 60 urteko errebalida zela, eta, izan zuen arrakasta ikusita, jarraipena izango du. Trilogia bat izango da; dagoeneko bigarrenarekin lanean nabil burubelarri.

---

## Gipuzkoako bertsolari txapelketan ordezkari barik

**A.E.** | ARRASATE

Zapatuan Irunen jokatu zen G Puntuaren azken final-zortzirena. Oñatin bizi den Urko Egañak parte hartu zuen saioan. 450,5 puntu lortu zituen Egañak, baina ez ziren nahikoa izan txapelketan aurrera jarraitu eta final-laurdenetarako sailkatzeko.

Egoitz Aizpuru oñatiarra izan zen saioaren gidaria. "Kalera irten eta paseoan zoazela nahi ez duzun leku batera iritsi zara..."; gai hori jarri zien sei bertsolariei kartzelakoan. Bertsolariek karga dramatiko handiko bertsoak bota zituzten. Bada, saio osoko lanak batuta puntu gehien lortu zituen bertsolaria Alaia Martin izan zen: 504,5 puntu.

**Hurrengo saioa Oñatin**

Sailkapenari begira jarrita, Debagoieneko bi ordezkariek ez dute aurrera egin txapelketan: Jokin Labayen arrasatearra 449 punturekin geratu da kanpoan eta Urko Egaña oñatiarra 450,5 punturekin geratu da.

Hurrengo saioa Oñatin izango da. Zubikoa kiroldegian jokatuko dute final-laurdena, urriaren 22an, 17:30ean. Jexux Mari Irazu, Beñat Lizaso, Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola, Iñaki Zelaia eta Iban Urdangarin bertsolariek jardungo dute. Puntu gehien batzen duena zuzenean pasako da hurrengo fasera.



Urko Egaña. | G PUNTUA



Jokin Labayen. | GOIENA

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

profesionaltasun zihurtagiri berriak

# LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA IKASTAROAK %100EAN DIRUZ LAGUNDUTA
Katalogo modular berrira lotutakoak.

| FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA | | |
|---|---|---|
| Ikastaroen izena | Orduak | Datak |
| Fabrikazio mekanikoko produktuendako irudikapen grafikoa | 40 | 2011/10/03-2011/10/27 |
| Txirbil-harroketa bidezko prozesu mekanikoak (tornua) | 80 | 2011/11/02-2011/12/22 |
| Txirbil-harroketa bidezko prozesu mekanikoak (Fresatzailea) | 80 | 2012/02/13-2012/04/03 |
| Txirbil-harroketa bidezko prozesu mekanikoetarako cnc programaren egiaztapen eta optimizazioa (heidenhain fresatzailea). | 70 | 2012/01/09-2012/02/16 |
| Txirbil harroketa bidezko piezen fabrikaziorako cnc programen garapena (fanuc tornua) | 80 | 2011/10/03-2011/11/24 |
| | 80 | Zehaztu gabe |
| Txirbil-harroketa bidez mekanizatutako produktuaren egiaztapena (dimentsionala) | 30 | Zehaztu gabe |
| Txirbil-harroketa bidez mekanizatutako produktuaren egiaztapena (tridimentsionala) | 30 | 2011/11/14-2011/12/01 |
| Urradura, elektrohigadura eta prozedura berezi bidezko piezen fabrikaziorako cnc programen sortzea. (Sarpen bidez / hari bidez). | 80 | 2012/01/30-2012/03/29 |
| Fabrikazio mekanikoko produktuaren dokumentuen kudeaketa (solid works. Modelatua eta planoak) | 30 | 2012/01/16-2012/02/02 |
| Fabrikazio mekanikoko produktuaren dokumentuen kudeaketa (solid works. Multzoak) | 30 | 2012/02/06-2012/03/01 |
| Prototipo mekanikoen zehaztapena eta gauzatzea (autocad) | 50 | 2012/04/16-2012/05/22 |
| Fabrikazio mekanikorako cad-cam programak erabiliz dokumentazio teknikoaren elaborazioa | 90 | 2012/03/05-2012/04/26 |
| Elektrodo eta erdiautomatikoarekin soldadura | 50 | 2011/10/26-2011/11/30 |
| Elektrodo eta erdiautomatikoarekin soldadura | 50 | 2012/02/06-2012/03/14 |
| Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozesuen zehaztapen teknikoak | 60 | Profesionaltasun ziurtagiria |
| Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio prozesu-kostuen kalkulua | 40 | |
| Lan eta ingurumen arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 30 | |

| ELEKTRIZITATE ARLOA | | |
|---|---|---|
| Ikastaroen izena | Orduak | Datak |
| Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua | 100 | 2012/01/30-2012/04/04 |
| Barruko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantenua | 90 | 2012/03/12-2012/05/24 |

| ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA | | |
|---|---|---|
| Ikastaroen izena | Orduak | Datak |
| Sistema operatiboa, informazioa bilatzea: interneta/intranet eta posta elektronikoa | 30 | 2012/01/09-2012/01/24 |
| Kalkulu orrien aplikazio informatikoak (excel) | 50 | 2012/01/25-2012/02/28 |
| Testu prozesatzaileak (word / power point) | 60 | 2012/02/29-2012/04/03 |
| Kudeaketa fiskala | 90 | Zehaztu gabe |
| Kudeaketa kontablea | 90 | Zehaztu gabe |
| Nominak, kotizatzea eta diru-bilketak | 90 | Zehaztu gabe |

| Beste batzuk | | |
|---|---|---|
| Ikastaroen izena | Orduak | Datak |
| Jasoketa eskorgen erabilera | 23 | Zehaztu gabe |
| Zubi-garabien erabilera | 17 | Zehaztu gabe |

| Langabeei zuzenduriko ikastaroak | | |
|---|---|---|
| Ikastaroen izena | Orduak | Datak |
| Cnc makina-erreminta prestatzaile programatzailea | 335 | 2011/11/07-2012/02/09 |
| Txirbil harroketa bidezko mekanizazioa | 260 | 2011/12/16-2012/04/13 |
| Biltegizain ikastaroa | 150 | 2011/10/17-2011/11/24 |
| Soldadura | 300 | Zehaztu gabe |
| Industria-argiketaria | 420 | 2011/10/14-2012/03/09 |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA
HOBETUZ
Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo

**Informazio gehiagorako edo izena emateko:**
**IEFPS Miguel Altuna**
**Ibargarai 1 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 70 49 • Faxa: 943 76 38 41 • email: ikastaroak@imaltuna.com • www. imaltuna.com**

# Oñatiko neska-mutikoak igoko dira 'Kantari' ikuskizuneko taula gainera

Zapatuan eta domekan zortzi saio grabatuko dituzte Oñatiko gaztelekuan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Kantariko bigarren grabazioak izango dituzte aste bukaeran Oñatin. Gaztelekuan izango dira saioak, zapatuan eta domekan, 17:00etan hasita.

"Zortzi saio grabatuko ditugu, lau zapatuan eta beste lau domekan", azaldu du Amaia Txintxurreta saioko aurkezleak. *Kantari* karaoke ikuskizunean euskal kantuak abestuko dituzte.

**40 taldek jardungo dute**

Aste bukaeran 40 talde igoko dira Oñatiko gaztelekuko taula gainera, 150 neska-mutiko inguru. "Gaztetxoak kantuan eta dantzan arituko dira", dio Txintxurretak.

Antolatzaile taldekoek gaztetxoen lagunak eta gurasoak animatu gura dituzte ikuskizunean parte hartzera. Aurtengo nobedadea da taularen atzealdean gertatzen dena jasotzen Aitor Agiriano kazetaria dagoela. "Gaztetxoen inpresioak, gustura geratu diren edo ez... jasotzea izango da asmoa", dio Txintxurretak. Horren harira, joan den aste bukaeran Arrasateko Amaia antzokian izandako "esperientzia ona" azaldu du: "Gurasoek barre ederrak egin zituzten seme-alabak kameraren aurrean ikusita!".



Kantariko saioak Amaia antzokian. | JOSETXO ARANTZABAL

**Hurrengoak, Bergaran**

Azaroaren 5ean eta 6an Bergaran grabatuko dute eta Aretxabaletan azaroaren 12an eta 13an egongo dira.

Behin grabazioak eginda urriaren 17an hasiko dira saioak Goiena telebistan emititzen. Egunero ikusi ahal izango dira, 19:15ean, eta hurrengo egunean 13:30ean.

## Kepa Errastik parte hartuko du haurrendako antzerki musikatuan

A.E. | ARRASATE

Haurrei zuzendutako antzezlana eskainiko dute Amaia antzokian bihar, zapatua, 17:00etan. Sarrerak 4 eurotan egongo dira salgai. Vaiven taldeak *Miauless* lana eskainiko du.

Neskato baten, bi katuren eta zenbait helduren arteko istorioa da *Miauless*. Antzezlanean parte hartuko duten aktoreen artean Kepa Errasti aretxabaletarra dago. Arrasate Irratiko lankideek egindako elkarrizketan Errastik gaztetxoak animatu gura izan ditu ikuskizuna ikustera. Agintzearen erraztasunaz eta heldu bilakatzearen zailtasunaz dihardu lanak. *Miauless*-ek guztiok daukagun altxorrik preziatuena ekarri nahi du gogora: askatasuna. Eta horretarako, eguneroko gauza txikien esperientziaz baliatuko dira, hitza, kantua, poesia eta umorea erabilita.

**7 urtetik gorakoendako**

Errastik azaldu du 7 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako lana dela. "Txikiagoak ere etorri izan dira, baina gertatu izan da ume txikiak beldurtu egin direla. Istorio iluna da, eta horregatik beldurtu izan dira", dio Errastik. Gaineratu du nagusiagoek ondo baloratzen duten lana dela.

Kepa Errastik albaitariaren papera egingo du antzezlanean. "Paper txikia izango da", azaldu du. Antzerki musikatua izango dela ere gaineratu du: "Pertsonaia bakoitzak abesti bat izango du antzezlanean".

**Itziar Pascual egilea**

Etxean elkar konprenitzen hasiz gero kanpoan elkar ulertzea samurragoa izango dela aldarrikatu gura du antzezlanak.

Itziar Pascual da antzezlanaren egilea eta euskarazko bertsioa Gloria Sanchezek egin du. Zuzendaria, ostera, Dorleta Urretabizkaia da. Aktore lanetan, Errasti aretxabaletarraz gain, Ainara Ortega, Iñigo Gastesi eta Oihana Maritorenak jardungo dute. Etxeko gaztetxoendako aukera paregabea izango da.

# Fly Shit bergararrak DVD berriarekin Arrasaten

'Kooltur ostegunak' ekimenaren barruan jardungo dute eguenean Arrasateko gaztetxean

A.E. | ARRASATE

Indartsu hasi dituzte bigarren denboraldiko saioak *Kooltur ostegunak* ekimeneko lagunek. Athom Rumba bilbotarrek estreinatu zuten denboraldi berria, hilaren 6an, eta, atzo, Eibarko Mursego bakarlariaren txanda izan zen.

Datorren asteari begira, Bergarako Fly Shit bergararren txanda izango da. Antolatzaileek azaldu dute euren asmoa indartsu hastea zela eta horregatik egitarau potentea antolatu dutela urrirako.

**DVD berri-berria opari**

Sorpresa edo berritasun bat izango dute bergararrek eguenean Arrasaten. Labetik atera berri DVDa ekarriko dute gaztetxera: "Sarrerarekin batera emango dugu DVDa opari", azaldu du Ander gitarra joleak. DVDaren oinarria Bergarako gaztetxean grabatutako zuzenekoa da; horrez gain, hainbat elkarrizketa egin dituzte –bai taldekideei eta baita lagunei ere.

2010. urte bukaeran argitaratutako *Arnas bakoitzeko ernetzen* laneko abestiak eskainiko dituzte eguenean.

**Dirua helburuak ordaintzeko**

Gaztetxean soinu ekipo potente baten beharra ikusi zuten Kooltur Ekintzak taldeko kideek; hala, AGAKOrekin batera ekipoa erosi zuten, eta, hain zuzen, hori ordaintzeko erabiliko dute ekintzetan aterako duten dirua.

Hurrengo saioetan, besteak beste, Zea Mays –abenduak 15–, Rafa Rueda, Split 77, NCC, Screamin' Targets izango dira Arrasateko gaztetxean.



Fly Shit bergararrek hilaren 20an joko dute Arrasaten. | GOIENA

## Taupa aurrealdean 'Ganberock' jaialdia egingo dute bihar

Des-kontrol eta Rat-zinger taldeek jardungo dute bihar, zapatua, Arrasateko Taupa tabernako aurrealdeko terrazan, 17:00etan hasita. Oi! eta street-punk musika egiten du Des-kontrol talde arrasatearrak; Bilboko Rat-Zinger taldeak, ostera, hardcore, punk eta rock doinuak.

## Bilboko The Foxi Leires taldeak Bergarako Tartufon joko du

Gaur izango da emanaldia, 23:00etan. Jimmy Hendrix omentzeko sortutako taldea da The Foxi Leires. Bi orduko emanaldia egingo dute. Zuzeneko indartsuak eskaintzen ditu. Hendrixen musika oinarri hartuta blues eta rock -and-roll doinuak eskainiko dituzte Tartufon.



**Kepa Zelaia** | Musikaria eta eskubaloi jokalaria

# "Ez zait gustatzen gauza bati denbora luzea eskaintzea; mugatu egiten du"




Oñatira sarri etorri arren, astean zehar Bilbon bizi da Kepa Zelaia.

TXOMIN MADINA

**TXOMIN MADINA** | OÑATI

Aurten 18 urte bete dituen gazte oñatiar hau ez duzue sare sozialetan aurkituko, baina bai beste hainbat tokitan. Bere burua musikaritzat ez duen arren, behin baino gehiagotan ikusi dugu agertokian. Baita eskubaloiko kantxan ere; edo Oñatzekin dantzan.

**Gogoratzen duzu noiz hartu zenuen lehen aldiz gitarra bat eskuetan?**

Duela urte eta erdi inguru izango zen. Gogoa sartu zitzaidan, lagun bati eskatu nion eta neure kabuz hasi nintzen. Gero, musika eskolan eman dut urtebete. Ez naiz geldi egoten, denetik probatzea gustatzen zait. Gauza bat bakarrik egiteak mugatu egiten duela uste dut.

**Eta hortik, gaur egun hainbat kontzertu ematera. Beti gustatu izan zaizu jendaurrean aritzea?**

Ez bereziki; Guria taberna ixtera zihoazela-eta, agur esateko ekitaldietan parte hartzeko ideia sortu zen eta hantxe jo genuen lehen aldiz Ander Etxanizek eta biok. Jendaurrean aritzea ez zait gustatzen, baina lotsa handirik ez dut. Beti diot nik aurpegia jartzen dudala eta Anderrek musika.

**Han izan zirenek gogoratuko dute Guria tabernaren azken egunean emandako kontzertua. Ruper Ordorikaren laguntza ere izan zenuten.**

Azken egunean kanpoan jo genuen; emanaldi akustikoa izan zen; eta bai, Ruperrek ere lagundu zigun. Hor ikusten da, Ruperren beraren kasuan moduan, pertsona batzuk musikariak direla, baina lehenengo pertsonak, eta berdin zaiela Ander eta biok bezalako bi hasiberrirekin jotzea.

**Zer sentitzen duzu kontzertu bat eskaintzean?**

Esan behar dut nik neuk ez dudala neure burua musikaritzat ikusten, gitarrarekin pare bat kantu jotzen dakien zelebre bat baizik. Jendea kontzertu baten inplikatzen bada, polita da; izan ere, jendea gustura ikusteak poztasuna ematen du.

**Mutil gazteak izan arren, askotan ikusi zaituztegu klasikoak bertsionatzen: Bob Dylan, Ruper Ordorika, Hertzainak...**

Gustatzen zaigun musika da; nik neuk denetarik entzuten dut. Baina aldarrikapen bat ere bada; Guriako kontzertuan, esaterako, Victor Jara ere bertsionatu genuen eta gazte askok, akaso, zein den ere ez dute jakingo. Gure aldarrikapena da, nolabait esateko, musika hori egon ere badagoela. Garai bateko musika izan arren, musika ona eta aberasgarria dela uste dut; asko irakasten duena.

**Eskubaloian ere ibiltzen zara. Gitarra jotzen baduzu, ez da arriskutsu samarra?**

Egia da gitarra jotzeko azazkalak luze uzten ditudanean, eskubaloian apurtu egiten direla...

**Nolatan eskubaloia? Duzun altuerarekin saskibaloirako egokiagoa zarela esango dute askok.**

Txikitatik ibili izan naiz, lehenengo Oñatin, gero Arraten eta orain berriz Oñatin. Orain lasaiago hartzen dut. Entretenitzeko modu bat da, kirola egiteko, lagunekin egoteko. Dena den, ez nintzateke hortik bizi izango. Eta bai, askotan entzun dut nire alturagatik saskibaloirako egokia izango nintzatekeela.

**Eta Euskal Selekzioarekin ere jokatu duzu. Zelako esperientzia?**

Bizpahiru urtez jokatu nuen eta gustura ibili nintzen. Esperientzia polita da; lan handia egiten da, gustuko kirola, jende hobearekin. Baina bere momentuan erre egin nintzen, zelanbait; ez zait gustatzen denbora luzea eskaintzea gauza bati, mugatu egiten duela uste dut. Denetik probatzea gustatzen zait; esaten dute: "Ofizio askoko pertsona, pobrea seguru". Ekonomikoki bai, baina esperientzia aldetik aberatsa izanez gero...

**Horren adibide da dantzan ere ibiltzen zarela.**

Bai; txikitan sartu nintzen, eta hor nabil oraindik ere.

**Aurten hasi dituzu unibertsitate ikasketak: Kazetaritza, hain zuzen ere. Zergatik?**

Bada, hasieran, Euskal Filologia egitea zen asmoa, baina aldatu egin nuen. Beti gustatu izan zait zer gertatzen den jakitea; jendeak askotan paso egiten du, eta niri gustatuko litzaidake jendeari interesa piztea. Gauzak ez dira halabeharrez gertatzen eta hori jakin eta jendeari ezagutaraztea, hori gura dut nik.

## MARRA AZKARREZ

**Oñatiko txoko gustukoena:** Gure baserria, Madalena auzoko Etxebarri.

**Eta Bilbokoa:** Oraindik ez dut askorik ezagutzen, baina, Azkunari esker, ezin Kukutza esan.

**Bidaia bat:** Ipar Euskal Herria, motxila batekin eta bizikletan.

**Udazken arratsalde triste baterako kantu bat:** .Leonard Cohenen edozein.

**Eta parrandarako:** Hertzainak taldearen *Ta zer ez da berdin*.

**Liburu bat:** Sarrionandiaren *Hitzen ondoeza*.

**Kazetari bat:** Pako Aristi.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 73 m²ko etxebizitza salgai. 18 m²ko garaje itxiarekin. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 660 70 04 48

**Arrasate.** Aukera polita. Arrasateko alde zaharrean etxebizitza salgai 162.000 eurotan. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpoaldera begira. Saltzeko arrazoia: kanpora bizitzen joan garelako. 662 18 25 73

**Eskoriatza.** Etxebizitza duplexa, m²koa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679 16 24 96

**Oñati.** Etxea salgai Kale-Zaharrean. 90 m² + ganbara. Hiru logela. Oso eguzkitsua. Garajerik ez. Prezio negoziagarria 657 79 43 29.

**Oñati.** Etxebizitza, 110 m², salgai Errementari plazan. 9 urteko antzinatasuna. Hirugarren solairua. Lau logela, bi komun, egongela handia, dena guztiz jantzia . Bi trasteleku eta bi plazako garaje itxia. Oso argitsua eta prezio interesgarria. 670 39 51 30

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Altamiran. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 943 79 26 47

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. 605 43 29 31

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Kale Zaharrean. Hiru logela. 656 00 84 92

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko gela bat daukagu libre, Araba ibilbidean. 678 73 66 54

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Erguinen, unibertsitatetik gertu. Erosoa eta handia. 645 01 05 84

**Bergara.** Bi pertsona behar dira etxea osatzeko. 678 23 54 93.

**Bergara.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 647 33 24 91

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 250 € hilean, gastuak barne. 670 85 86 68

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Intxaurtxuetan. Edurne. 639 88 80 63

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Eskoriatza.** 15 m²ko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. 679 16 24 96

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate**
Esperientziadun sukalde laguntzailea behar da asteburuetan.
695 78 81 53

**Bergara**
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
Langilea. Egun osoz.
943 53 24 52

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu. Astean 2-3 egunez. Interesatuok deitu zenbaki honetra: 676 294 174

**Arrasate.** 53 urteko emakumea, lanerako gertu. Deitu 943 79 60 89 telefonora.

**Arrasate.** Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. 606 88 94 14

**Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi duen neska euskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasatekoa naiz. 665 73 10 08

**Arrasate.** Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmentuduna. Ordutegi malgua, baita gauez ere. 618 00 08 28

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta arratsaldetan nagusiak zaintzeko. 665 75 41 32

**Bergara.** Mutila gertu arratsaldeetan lan egiteko, egunero. 654 98 69 14

**Bergara.** Neska esperientziaduna gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 76 12 57 edo 652 75 68 95

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Edozein lan mota egiteko prest: garbiketak, adinekoak zaindu, sukaldeko laguntzaile eta abar. 603 82 30 08

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 663 53 70 38

**Debagoiena.** Emakume euskalduna umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. Baita nagusiak zaintzeko ere, tituluarekin. 652 76 65 06 edo 943 79 11 14

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Miranigatik. 698 39 08 27

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko orduka, egun osoz zein gauez. Legezko paperekin. 671 18 50 83 edo 943 10 96 89

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari laguntzaile jarduteko zein gaixoak zaintzeko. Egunez eta gauez. Esperientzia eta informeak ditut. 661 48 86 74 edo 943 79 67 96

**Debagoiena.** Garraio lanak egiteko prest nengoke: pertsonak, paketeak edo bestelakoak. Furgoneta daukat. 628 51 22 78

**Debagoiena.** Ikasketa soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649 15 72 47

**Debagoiena.** Lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbitasunean edo sukalde laguntzaile gisa. 691 03 25 02 edo 697 88 35 62

**Debagoiena.** Mutil euskalduna mendi garbiketak, lorezaintza lanak eta abar egiteko prest. 658 73 79 02

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko: obretan, nekazaritzan, tabernetan eta abar. 600 80 68 83

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko: garbitze-lanak, zerbitzari-lanak, obrak eta abar. 687 26 89 05

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, egunean 24 orduz, baita asteburu zein jaiegunetan ere. Badakit euskaraz. 696 38 10 07

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaindu zein garbiketa eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 626 09 73 77

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan jardungo nuke. Regina. 646 22 29 35

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Egun erdiz edo osoz. Neska arduratsua naiz. 645 01 05 84

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Astebukaeretan. 627 15 09 34

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eskarmentua duen mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala lanean hasteko gertu. Legezko paperak ditut. Deitu 603 14 59 17 telefonora

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

